

EUSKO JAURLARITZAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

IV. PLANGINTZALDIA

(2008-2012)

Argitaraldia: 1.a, 2008ko uztaila

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Kultura Saila

Internet: www.euskara.euskadi.net

Azala: Antton Olariaga

Diseinua: Junkal Motxaile

IV Plangintzaldiaren atarian

Gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietakoa da herritarren eskubideak, eta horien artean, hizkuntza-eskubideak bermatzea. Autonomia Estatutuak, euskara –gaztelania bezalagure Erkidegoko hizkuntza ofizialtzat ezartzeaz gain, euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen die herritar guztiei, eta eskubide horiek benetan baliatzeko neurriak hartzeko betebeharra ezartzen die herri-aginteei. Bide-erakusle izan behar du, beraz, Administrazioak, eta legeak betearaztea ez ezik, legeak betetzea dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza-eskubideak egiazki errespetatuak izan daitezen.

Euskal gizartea gero eta elebidunagoa da, eta, gainera, gero eta neurri zabalagoan ari da aldarrikatzen bere hizkuntza-eskubideak; horrek guzti horrek bide berriak urratzea eskatzen dio Administrazioari: datozen urteotan gure hizkuntza-politikaren helburu nagusia izango da Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera-berdintasuna gero eta neurri zabalagoan ziurtatzea, eta ziurtatzea, betiere, herritarrari deserosotasunik eragin gabe.

Horretan ari dira euskal administrazio publikoak azken plangintzaldietan, eta horretan jarraitu behar da 2008an hasi eta 2012ko abenduan amaituko den IV. Plangintzaldi honetan. Euskarak, gaztelaniarekin batera, Administrazioak eta, zer esanik ez, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza “normala” behar du izan: zerbitzu-hizkuntza herritarrekin; harreman-hizkuntza beste administrazio eta erakundeekin; eta lan-hizkuntza administrazio barruko eguneroko jardunean.

Eskuartearen daukagun liburua aintzat harturik, abian jarriko dira aurten bertan euskararen erabilera normalizatzeko planak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztietan. Plan horiei esker, seguru nago pauso sendoak emango direla Administrazioa euskalduntzeko eta herritarren hizkuntza-aukeraren berdintasuna bermatzeko.

MIREN AZKARATE VILLAR
Kultura sailburua

Eusko Jaurlaritzako Plana: euskararen erabilera, etorkizunaren giltzarri

Azken urteotan ahalegin handiak egin ditu Eusko Jaurlaritzak eta baita bere langileek ere, euskararen ezagutzak aurrera egin dezan Administrazioan. Horren ondorioz esan daiteke ezagutzaren aldetik inoiz ez bezala prestaturik gaudela euskaraz ere lan egin ahal izateko. Euskararen erabilerrari dagokionean ere egin dira urrats batzuk; gutxi, ordea. Bistan da ezagutzaren gorakada horrek ez duela neurriko islarik izan –ezta hurrik eman ere- euskararen eguneroko erabileran, eta, beraz, euskara ez da oraindik bihurtu Administrazioaren jarduneko hizkuntza “normala” eta ohikoa. Administrazioan duela hogeita urte inguru egin asmo genuenaren eta, gero, urteotan egiazki egin dugun ibilbidearen arteko tartea handiegia dela, bistan da. Zenbaiti onartzea kostatzen egiten bazaio ere, aurrerapausoak eman dira, bistan da hori ere. Baina, aurrerapausoak eman diren arren, egin zitekeenaren eta egitea lortu denaren artean tarte handia, handiegia, zabaldu da, etena dirudien tartea hain zuzen ere.

Horregatik, beraz, oso zehatza den eta aurreko urteetakoekiko berritzailea den helburuarekin gatz IV Plangintzaldira. Euskaraz ere egunerokotasunean normaltasun osoz lan egin daitekeela erakustea dugu helburu. Hori lortze aldera, ezinbesteko tresna eta lanabesa dira Eusko Jaurlaritzako sailetan eta erakunde autonomoetan martxan jarriko diren planak. Plan horietan sekula baino langile gehiagok hartuko dute parte, gutxi gorabehera 2.000 langilek, eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak oinarri harturik, euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eta ekintzak antolatuko dira hurrengo urteetan. Proiektuak beste berrikuntza batzuk ere badakartza: alde batetik, erabilera planetan sartutako langileek egiten dituzten lan-jardun nagusien azterketa komunikatiboa egingo da, hortik aurrera euskaraz zer egingo den erabakitzeko; eta bestetik, norbanako hizkuntza-prestakuntzari buruzko planak jarriko dira martxan, langile horiek euskaraz trebatzeko.

Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenez, lana euskaraz egiteko gai direla erakutsi duten milaka langilek pixkanaka –eta ez, nahitaez, guztiz; neurri batean, baizik– euskara ohiko lan-hizkuntzat erabil dezaten lortzea da IV. Plangintzaldiaren helburu nagusia, muina eta bizkarrezurra. Hizkuntza-gaitasuna –beraz, baita hizkuntza-eskakizunak ere– euskararen erabilerarekin lotu nahi d(it)ugu zuzen-zuzenean, erabilera dugulako helburuen artean helburu, eta hizkuntza-gaitasuna horretarako bitarteko eta baldintza. Gainera, bitartekoa den gaitasunetik

helburu dugun erabilerarako jauzia pixkanaka egingo badugu, batetik bestera eramango gaituen zubia behar dugu: borondatea eta atxikimendua dira zubi horren zutabe nagusiak.

Gai izan behar dugu Eusko Jaurlaritzako langileen motibazioa indartzeko, gaztelaniarekiko inertzia eten, eta arian-arian euskaraz ere modu normalean lanean has daitezen: euskarak hiztunak behar ditu, ez salbatzaileak. Arduradun politikoak, bestalde, euskararen erabilera normalizatzearen garrantziaz jabetu, eta, nor bere sailean, prozesuaren akuilu eta aitzindari izan behar direla uste dut. Oso erabakigarria izango da, ez dut horretan zalantzarik, arduradun politikoen jarrera eta jarduna, onerako bezala txarrerako. Azken batean, Administrazioak kalitatezko zerbitzua bermatu behar die herritarrei, eta kalitatea, beste zenbait egitekoren artean, bada zerbitzua euskaraz ere ematea, baita hori ere.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza prest dago, eta hala egingo du, prozesua lideratzeko, metodologiarik egokiena proposatzeko, egin beharreko urratsak koordinatzeko eta bere esku dauden baliabide guztiak sail eta erakunde autonomoen eskura jartzeko. Horretarako eta gehiagorako dago prest, eta ilusioz beterik. Aurrera egin beharra dago euskararen erabileraren normalizazioan, malgutasunez eta era progresiboan, baina aurrera beti; gehiago ala gutxiago eginda, baina atzera pausorik gabe; betiere jakinda pixka bat, askotan, *mucho* izan daitekeela.

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Aurkibidea

1. SARRERA	9
2. IV. PLANGINTZALDIAREN AURRETIKOAK	13
2.1. III. Plangintzaldia (2003-2007): balorazio-txostena	13
2.2. Bestelako hausnarketak III. Plangintzaldiaren oinarrien inguruan	14
3. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA	17
3.1. Eragin-eremua	17
3.2. Eragin-epea	17
3.3. Xede nagusia	18
3.4. Helburu orokorrak	18
3.5. Oinarriak	19
3.6. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak	19
3.7. Metodologia	20
3.8. Parte-hartzaileak	21
3.8.1. Erabilera-planean sartuko direnak	21
3.8.2. Erabilera-planetik kanpo geratuko direnak	23
3.9. Lehentasun komunikatiboak	23
3.10. Berariazko hizkuntza-prestakuntzaren eta -trebakuntzaren garrantzia	25
3.11. Antolakuntza-egiturak	26
3.11.1. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra	26
3.11.2. Saisetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak	27
3.11.3. Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea	28
3.12. Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen funtzioak eta lan-prozedura	28
3.13. Planaren kudeaketa eta jarraipena	30
3.13.1. Urteko balorazio-txostena	30
3.13.2. IV. Plangintzaldiaren tarteko eta bukaerako balorazioa	31
3.14. Baliabideak	32
3.14.1. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	32
3.14.2. IVAP	33
3.14.3. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoak	33

4. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK IV. PLANGINTZALDIAN	34
4.1. Derrigortasun-datak ezartzea	34
4.2. Derrigortasun-datak jartzeko hurrenkera	35
5. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNAK	36
A ERANSKINA (Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak)	41
B ERANSKINA (Metodologia)	57
C ERANSKINA (Hizkuntza-egoera)	67

I

Sarrera

Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen du, eta hori oinarri harturik, euskararen normalkuntza eta erabileraren sustapenerako markoa definitzen du 10/1982 Euskaren Legeak; alegia, arautzen ditu herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Administrazio Publikoari dagokionez, Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, Administrazio langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, Administrazio lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko hizkuntza-erregimena, zeinaren arabera zenbait lanpostu betetzeko derrigorrezkoa izango baita bi hizkuntza ofizialak ezagutzea, eta gainerako lanpostu guztiak betetzeko, beste merezimenduen artean, hizkuntza ofizial bien ezagutza aintzat hartu behar baita. Urte batzuk geroxeago, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak garatu zituen Administrazioak hizkuntzaren alorrean dituen betebeharrak.

I. Plangintzaldiaren (1990-1995) helburu nagusia izan zen Administrazio langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialetan jarduteko; honetan egin ziren ahalegin handienak: hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzen, langileak eskolaratzen, haien euskara-maila hobetzen...

II. Plangintzaldian (1997-2002), ordea, aldaketa bat gertatu zen; langileak euskalduntzen eta alfabetatzen ari ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten, ez eta antzekoan ere. Hori guzti hori kontuan izanik, II. Plangintzaldiaren helburu nagusia langileak hizkuntza aldetik prestatzea ez ezik, euskararen erabilera areagotzea izan zen; eta hori lortze aldera, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ekarri zien euskal herri-administrazio guztiei.

86/1997 Dekretuan ezarritakoa betetzeko, bi plan onartu ditu Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak orain arte: II. Plangintzaldiari dagokiona (1997-2002) eta III. Plangintzaldikoa (2003-2007). Bietan ere, langileak euskalduntzeko neurriak ahaztu gabe, oinarri teoriko sendoak jarri dira euskararen erabilerak gora egin dezan: Administrazio atalak eta lehentasunak definitu dira, metodologia bat (AEBEMET), hizkuntza normalizatzeko neurriak, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak...

Nolanahi ere, aitortu beharra dago neurri horiek guztiak ez direla nahikoak izan, Administrazio Orokorreko langileek euren eginkizunak euskaraz ere bete ditzaten.

Azken hemezortzi urteotan aurrera egin dugu nabarmen, baita hizkuntzen balorazioan ere. Garai hartan, oraindik ez zen hain “normala” euskara jakin beharra aldarrikatzea Administrazioan lan egiteko: zeresan eta tirabira franko sortzen zituen horrek; gaur egun, oster, jakin behar hori normaltasun handiagoz onartzen da. Izan ere, Auzitegi Konstituzionalak 1986an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen gainean emandako epaiak berak ere egoki eta bidezkotzat jotzen du herri-administrazioetan jarduteko euskararen ezagutza aintzat hartzea, betebeharrak edo merezimendu gisa. Horri esker, Administrazio Orokorreko langileen hizkuntza-gaitasuna erruz hobetu da: %59,74k egiaztatua du hizkuntza-eskakizunen bat; hala eta guztiz ere, bada beste gauza bat oraindino askok “normal eta ohikotzat” hartzen ez duena: Administrazioan euskaraz ere lan egin daitekeela sinestea. Urte hauetan zehar ez da asmatu langileen hizkuntza-gaitasuna eguneroko lanean neurri egokian islatzen; horren ondorioz, gaztelaniaz egiten da lan nagusiki. Hauxe, beraz, hemendik aitzina “normaldu” behar dena: Administrazioan euskara ere lan-hizkuntza izatea.

Eta nola lortu “normaltze” hori? Nola lortu bi lan-hizkuntzen arteko benetako berdintasuna, eta ez bakarrik berdintasun formala, eta are gutxiago itxura soileko berdintasuna? Plangintzarena bada bide bat, baina inola ere ezin pentsa daiteke planifikatze soilak eramango gaituela euskararen erabilera areagotzera: korrelazio hori ez da ezinbestekoa. Egia da plana behar dela, eta metodologia arina, eta baliabide ugari... Egia da hori guztia behar dela, baina ez da nahikoa. Euskara ere Administrazioko lanerako hizkuntza bihurtuko bada, langileak euskaraz ere egin behar du lana. Eta horretarako zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan-hizkuntza moduan, nola, norekin, noizko, eta, batez ere, zergatik. Horrezaz gain, langileen motibazioa indartu behar da, euskaraz lan egiten lehen urratsak emateko, baita gaztelaniarekiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz jarduten hasteko ere.

Horixe da, hain zuzen ere, IV. Plangintzaldiaren helburua: euskara ere lan-hizkuntza normala bilakatzea; esan nahi baita, eskuarteko plan honen xedea ez da euskararen “presentzia” bermatzea, zeren hori, itzulpenaren makulua erabilita bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean; plangintzaldi honetako helmuga da Administrazioan bi hizkuntzen berdintasunera jotzea. Administrazio honek zabaldu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz. Eta une honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, aurreko plangintzaldien bitartez ezagutza-maila ona erdietsia den une honetan: izan direlako gara.

Jakinekoa da helburu hori ez dela goizetik gauera lortuko; jakinekoa da inoiz egin gabeko lanetan hasteak deserosotasuna sor dezakeela, bai sailetan eta baita langileengan ere. Baina, erronka berri hau ez da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena bakarrik, Eusko Jaurlaritza osoarena baizik. Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren hizkuntza-aukera beti eta ororen gainetik errespetatu beharko du, herritarrei deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere; eta, aldi berean, hizkuntza-aukera egiazkorantz pausoz

pauso, etengabe, eramango gaituen prozesua izan behar du, alegia, euskararen erabilera benetan ahalbidetzeko eta bultzatzeko eraginkorrak izango diren neurriez gorpuzturiko prozesua. Egiazki, eta adostasunak ahalbidetzen duen ilusioz, egin daitekeena egin nahi da, ez gehiago; eta egiazki, eta adostasunak ematen duen indarraz, egin daitekeen guztia egin nahi da, ez guxtiago.

Euskarak ere lan-hizkuntza behar du izan. Horretarako, sail eta erakunde bakoitzak ispi-luaren aurrean jarri behar du bere burua, eta erabaki zeri heldu, modu errealistan baina baita autoexigentean ere. Sailek jabetu beharra daukate: ezin da aurrera egin deserosotasunak izango direla alde aurretik onartu gabe. Hala ere, lasai: ez da ezinezko helbururik ezarriko, eta ez goaz euskara hutsean funtzionatuko duen administrazio baterantz, ez eta gutxiago ere. Argi dago hone-lako erronkei poliki-poliki eta akordioaren bidetik egin behar zaiela aurre; argi dago, era berean, sailek erabakiko dutela zein izango den euren planen helmuga eta abiadura; baina gutxieneko batzuk jarri beharra dago: euskara lan-hizkuntza izango da lan-jardun batzuetan, hain zuzen ere, 86/1997 Dekretuan jasotako helburuak bete daitezten. Gutxienekoa izango da 86/1997 Dekretuak jasotzen duena; hortik gora egitea sail bakoitzaren borondatearen eta ahalbideen esku egongo da.

Eta langileei ere dei egiten zaie euren ekarpena egitera: euskara ere erabiltzera eguneroko zenbait lan-eginkizunetan; izan ere, bakoitzak apur bat eginda, denon artean asko egingo dugu. Langileak dira, azken batean, hizkuntzen artean hautatzeko aukera eskaini behar dutenak. Hasi-erian zalantzatan ibiliko dira: gauza ote diren, asmatuko ote duten, beste hizkuntza ganoraz noizbait erabiliko ote duten... baina ez dago zertan kezkatu, zeren jakina baita herri-langileek hizkuntza-gaitasuna badutela, uste dutena baino dezente handiagoa gainera, hori jakina da; langileak eurak dira sinetsi eta euren buruarengan konfiantza hartu behar dutenak. Eta horretarako baliabideak jarriko dira, laguntasun eta bultzada txiki bat emanda, bistakoa delako gai direla lanari dagozkion zenbait zeregin euskaraz ere gauzatzeko.

Frogatuta dago lan eginez ikasten dela egiten, jardunez lortzen dela eskarmentua. Langileek eskuratuko dute hizkuntza, lana euskaraz egiten duten neurrian. Euskal gizartea urrats sendoak ematen ari da elebitasunaren bidetik; hemendik gutxira, langileak euskalduntzeko premia nabarmen gutxituko da, eta euskara erabiltzearen beharra dezente handituko. Bada garaia, Administrazioak azken urteotan langileak euskalduntzen eta alfabetatzen egin duen esfortzuari etekina ateratzeko. Euskaraz ere hasi behar da lanean; arian-arian, apurka-apurka, helburu hori ez baita lortuko goizetik gauera. Horrenbestez, IV. Plangintzaldi honetan egoera irauli eta euskara ere erabiltzen hasiko gara: aurrekoaren amaieran ereindakoa hezurramituko dugu elkarren artean: langile gehiagok izango du sarbide erabilera-planetan, langile horien komunikazioek izango dute lehentasuna, berriazko hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntza eskainiko zaie langileei hautatutako zereginak euskaraz egiteko... Hori guztiori Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak oinarri eta helmuga harturik.

Egitasmo hau ez da "beste" plan estrategikoetariko bat. Hori baino gehiago dugu euskara. Euskara da Euskal Herritik kanpoko gainerako administrazioetatik bereizten gaituena; euskara

dugu komunikaziorako tresna, eta gure izate kolektibo anizkoitzaren ezaugarririk behinena. Gure esku dago euskara Administrazioiko hizkuntza ohikoa izatea. Beste hizkuntza batzuen kasuan ez bezala, euskararenean Euskal Administrazioa baita munduko administrazio bakarra euskara ohikotasunez eta normaltasunez erabil dezakeena. Gainera, euskal gizartea gero eta elebidunagoa da, eta gizartearen zerbitzura dagoen administrazioak lehena izan behar du errealitate horretara egokitzen. Bide-erakusle izatea dagokio Administrazioari, eta legeak betearaztea ez ezik –eta horren aurretik– legeak betetzea dagokio. Gizartearekin batera elebidunago bihurtuaz doan Administrazioak bermatuko du zerbitzu aurreratua eta kalitatezkoa. Kalitatean eta errespetuan oinarrituriko elkarbizitza gero eta orekatuagorako ekarpenak dira, beraz, administrazio egiaz elebidunak gero eta elebidunagoa den eta izan nahi duen euskal gizarteari eman diezazkiokeen balioak.

IV. Plangintzaldiaren aurrekariak

Plan berri bati ekin baino lehen, aurrekoak emandako emaitzak aztertu beharra dago, sakon gainera, etorkizunean arrakasta izateko. Bada, III. Plangintzaldiaren argi-ilunak ikusteko, bi bide erabili ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: alde batetik, aurtengo urtarrilean aurkeztutako *III. Plangintzaldia (2003-2007): balorazio-txostena*; eta, beste alde batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak berak, herri-administrazioetan euskararen erabilera-planen oinarriak osatu nahian, eginiko hausnarketak. Horra hor, bada, batzuk eta besteak labur-labur.

2.1. III. Plangintzaldia (2003-2007): balorazio-txostena

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak III. Plangintzaldiaren balorazio-txostena egin du 2007ko abenduan. Bertan datu kuantitatiboak bildu dira batetik, eta, bestetik, azterketa kualitatiboa egin da. Informazio kuantitatiboa jasotzeko, galde-tegi egituratu bat prestatu da. EAeko herri-administrazio bakoitzean hizkuntza-normalkuntzako teknikariak bete du galdetegia, baina kasu guztietan arduradun politikoaren oniritzia ere eskatu da; beraz, entitatearen onespenerekin jasotako datuak dira. Informazio kualitatiborako, berriz, hainbat elkarrizketa egin dira hizkuntza-normalkuntzako teknikarien, bestelako adituen eta alderdi guztietako politikarien artean. Ikerketa horren guztiaren ondorioz, txosten horren amaieran etorkizunerako lan-ildo batzuk proposatzen dira, IV. Plangintzaldiaren atarian kontuan izateko modukoak.

Datu kuantitatiboei begiratuta, euskararen ezagutza nahiko handia da Administrazioan: Eusko Jaurlaritzako langileen %59,74k hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu du, eta %43,90k dagokiona. Gainera, III. Plangintzaldian derrigortasun-data zuten langileen %47,41k dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu du eta %5ak bakarrik ez du inolako mailarik egiaztatu; hala eta guztiz ere, datuek gordintasun osoz erakusten dute euskaraz lan egiteko gaitasuna duen langileria horrek gaztelaniaz jarduten duela gehien-gehienetan: gaztelania dela Administrazioko sor-

tze-hizkuntza nagusia. Ezagutza alde batera utzita, orokorrean, erakundeen hizkuntza-paisaian (errotulazioan, papelerian) eta kanpo-proiektzioan (argitalpenak, web orriak, iragarpenak) bermatuta dago euskararen erabilera, batez ere idatzizkoan; beraz, Administrazioak nahiko ondo bermatzen du euskararen presentzia kanpora begirako jardunetan. Eta hori poztekoa da, baina haratago begiratu beharra dago, sakonago, zeren hedapen elebidun hori itzulpenek bermatzen dute hein handi batean (sarritan Administrazioetik kanpoko itzultzaile-saldo batek).

Datu kualitatiboei erreparatzen bazaie, aipagarriak dira III. Plangintzaldiak izan dituen indargune eta aukerak: euskal hiztunen kopurua gora doa, euskararen presentzia ziurtatuta dago neurri batean, gero eta hobeto onartzen zaio herritarrari hizkuntza aukeratzeko eskubidea... Hala ere, mehatxuak eta ahuleziak asko dira; eta, hain zuzen ere, gabezia horiei aurre egiteko, ondoko lan-ildo hauek proposatu ziren IV. Plangintzaldirako:

- Euskararen erabilera sustatzeko komunikazio-plan orokorra beharrezkoa da.
- Ezagutza erabilerara bideratzeko mekanismoak ezarri behar dira.
- Hizkuntza-eskakizunen eta egiaztatze-sistemari buruzko gogoeta egin beharra dago.
- 86/1997 Dekretua aztertu eta egokitu egin behar da.
- Erakundeen arteko elkarlan eta koordinaziorako harreman-sare egonkorrak gorpuztu behar dira.
- Euskararen erabilerarako metodologia eta tresnak landu behar dira. Bereziki, jarraipena egiteko tresnak.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eginkizun eta helburuen gaineko hausnarketa egin beharra dago.

2.2. Bestelako hausnarketak III. Plangintzaldiaren oinarrien inguruan

Hiztun-kopuruaren trinkotasuna

Joan den III. Plangintzaldian hiztun-kopuruaren trinkotasunari eman zaio lehentasun osoa; alegia, euskal hiztunak elkarrengana biltzeari. Pentsatuz euskal hiztunak elkarrekin egonda euskararen erabilera areagotu egingo zela, uste hori oinarritzko kontzeptu bihurtu zen plan guztian zehar.

Horri aurka egiterik ez dago. Zenbat eta euskaldun gehiago bildu administrazio-atal batean, orduan eta errazagoa izango da euskaraz jardutea; hala ere, hiztun-kopuruaren trinkotasunak ez dakar, berez eta besterik gabe, euskararen erabilera; erraztu, bai, errazten du, baina bilketa soila ez da nahikoa euskal hiztunak euskaraz lanean jartzeko. Gainera, helburu nagusia atal elebidunak sortzea izan denez –aldez aurretik jakinda hori oso zaila zela– lehentasun osoa eman zaie bai jen-

daurreko atalei (L1), bai elebidun izateko bidean dauden gizarte-izaerako atalei (L2), eta erabilera-planetik kanpo geratu dira Eusko Jaurlaritzako euskaldun gehienak. Hori horrela izan da, baina aurrera begira, IV. Plangintzaldirako proposamenen, atal elebidunak sortzeak (hiztun-kopuruaren trinkotasuna) euskararen erabilera normalizatzeko duen garrantzia zalantzatan jarri gabe, langileen lan-jardunek sortutako lehentasunezko komunikazioei emango zaie lehentasuna.

Atal elebidunak izendatzeko baldintzak

Orain arte atal bat elebiduna izendatu bada, baldintza zorrotzak bete behar izan ditu, besteak beste: derrigortasun-datak jarrita eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta %80 inguruk izatea, atalburuak ere gutxienez 3. HE egiaztatuta izatea... Horri erantsi behar zaio hainbat jende euskara ikastetik salbuetsita dagoela –horietako batzuk atalburuak–, langileak etengabe mugitzen direla lanpostu batetik bestera, euskarazko harreman-sarea falta dela hainbat tokitan... Horren guztia-ren ondorioz, oso atal elebidun gutxi osatu ahal izan dira III. Plangintzaldian.

1997ko Dekretuan oso ondo bereizten ziren bi atal-mota hauek: euskarazko administrazio-atalak, batez ere euskaraz lan egiten dutenak (HABE, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala, IVAPeko Euskalduntze Zerbitzua...); eta administrazio-atal elebidunak, hau da, beren zereginak euskaraz eta gaztelaniaz bete ditzaketenak. Azken honetara jo behar dugu apurka-apurka: atal guztiak gaitzera, beraiei dagozkien funtzioak arian-arian euskaraz ere egin ahal izateko. Hori, eta ez bestea, izango da helmuga plangintzaldi berrian.

Administrazio-atalen izaera

Gogoeta hauekin amaitzeko, atalen izaerari erreparatuko diogu. Honela sailkatzen dira administrazio-atalak (86/1997 Dekretua, 16. art.):

- Jendaurrekoak
- Gizarte-izaerakoak
- Izaera orokorrekoak
- Izaera berezikoak

Sailkapen horren arabera, jendaurreko ataletan herritarrekiko harremanak eguneroko lanaren ardatza dira; edo gizarte-izaerakoetan harreman-sare oso nabarmenak dituzte beste administrazioekin. Horrek ez du esan nahi, ordea, izaera orokorreko edo izaera bereziko ataletan inolako harremanik ez dagoenik herritarrekiko edo beste administrazioekin. Eta nola III. Plangintzaldian jendaurreko atalek eta gizarte-izaerakoek zuten lehentasuna erabilera-planetan parte hartzeko, atal horietakoak izan ez arren jendaurreko edo gizarte-izaerako zenbait lan-jardun komunikatibo gauzatzen dituzten hainbat eta hainbat euskal hiztun erabilera-planetatik kanpo gelditu dira. Hori horrela izanik, IV. Plangintzaldi honetan atalaren izaera “teorikoari” baino gehiago begiratuko zaio lanpostu bakoitzak gauzatzen dituen komunikazioen izaerari.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Aintzat hartu behar da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) garrantzia, 1998ko uztailaren 28ko Jaurlaritzaren Kontseiluan onartua, izaera estrategikoa baitu hizkuntza-normalizazioan aurrera egiteko, eta funtsezko tresna baita hizkuntza-politikaren gaineko ardura duten botere publikoek euren jarduera zentratzeari begira.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Horregatik, herri-administrazioen hizkuntza-plangintza Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan ulertu behar da.

Hizkuntza-egoera

Dokumentu honen C Eranskinean hizkuntza-egoeraren gaineko informazioa dago eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.a) artikulua araberan, normalizazio-plan orok jarraian aipatutakoa jaso behar du:

a) erakundearen gaur egungo hizkuntza-egoera azalduko da eta, horrez gainera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntza-eskakizun ezarri behar zaion eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere zehaztuko da. Era berean, euskara-maila eta langileen hizkuntzaren gaitasun-prozesuari buruzko informazioa ere jasoko da bertan.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

Atalka banatuta dator Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Eranskinak eurak ere oso gogoan eta presente izatekoak dira, haietan zehazten baitira Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta metodologia bera. Hitz egingo da helburuez, ekintzez, berariazko prestakuntzaz, neurketez, antolakuntza-egiturez... kontzeptu asko jorratuko dira.

Hala ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan honetaz ondo jabetzeko kontuan izan behar da, orokorra izanik ere, batez ere langileek egin behar duten ahalegina jorratzen duela. Esan nahi baita, planeko helburuek eta ekintzek ahalbidetuko dute euskararen erabilera areagotzea abian jartzen den saileko edo ataleko hizkuntza-paisaian, baliabide informatikoetan edo kanpo-proiektzioan; baina, era berean, plan honek bide emango die sail, atal edo erakunde autonomoei zehazteko administrazioko langileak zertan eta nola hasiko diren euskara erabiltzen eguneroko lanean.

3.1. Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremukoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2003-2007 aldirako Planak (2004ko irailaren 8ko EHAA) sozietate publikoetarako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetarako hainbat aurreikuspen jasotzen zituen 9. puntuan, plangintzaldi berrian ere indarrean daudenak.

3.2. Eragin-epea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren eragin-aldia 2008ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2012ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalkuntzarako prozesuaren IV. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

3.3. Xede nagusia

Plangintzaldiaren xede nagusia da Administrazio Orokorrean hizkuntzen berdintasunera jotzea, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza “normala” bilakatzea, hori guzti hori, presentzia bermatuzetik haratago joanda eta euskarazko sortze-lana areagotuta. Euskara, beraz, lanerako hizkuntza izatea bere osoan: zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman-hizkuntza beste administrazioekin, eta Eusko Jaurlaritza barruko lan-hizkuntza.

Eta hiru harreman horiek ezinbestekoak izanik euskararentzat, herritarrekikoa da gure lehen erronka. Kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko luke zerbitzua hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela. Hori lortzeko, ezinbestekoa da sailetako erabilera planek horri begira lan egitea.

Beste administrazio batzuekiko komunikazioei dagokienez (harreman-hizkuntza), behar-beharrezkoa da erakundeen arteko koordinazioa, ez bakarrik euskararen presentzia ziurtatzeko baizik eta, adostasuna tarteko eta bideragarria denean, euskarazko harremanen alde egiteko.

Lan-hizkuntzari erreparatuta, Eusko Jaurlaritza barruan, poliki-poliki, prestakuntza egokiaz baliatuta eta euskaraz lan egin behar dutenen arteko harreman-sarea osatu ahala, sailetako euskararen erabilera areagotzen ahalegindu beharko dira etengabe sail guztiak.

Helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea da, pausoz pauso, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz beti, eta hain zuzen ere, horrexegatik eta horretarako bermatuz hizkuntza erabiltzeko aukera-berdintasuna. Horrek dakar erabilera-aukera urriagoak dituen hizkuntzaren erabilera sustatzea, eta horretara dator Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

3.4. Helburu orokorrak

Lau dira erabilera-plan honen helburu orokorrak:

- Euskararen ahozko erabilera areagotzea.
- Euskararen idatzizko erabilera areagotzea, sorkuntzari lehentasuna emanaz.
- Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitzea.
- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

Ikusten denez, lau horiek bitan laburbiltzen dira: euskararen erabilera areagotzea, sorkuntza ere oso kontuan izanda, eta langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea. Horiek lortzeko ezarri dira proiektu honen zutabe nagusiak: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta sailetako erabilera-planak.

3.5. Oinarriak

Bi hauek izango dira plangintzaldiaren oinarri nagusiak

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak; bideak jarri behar ditu hizkuntzen berdintasunera jotzeko; eta hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari lehen atentzioa euskaraz ematea, hari inolako deserosotasunik eragin gabe.
- Erabilera-planetan langile gehiagok hartuko du parte: batetik, derrigortasun-data ezarria izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten guzti-guztiak sartuko dira; eta, bestetik, borondatez, derrigortasun-data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak. Bada, horiek guztiek euskara ere lan-hizkuntza bezala erabiliko dute Administrazioan, maila batean edo bestean: gutxienez funtzio komunikatiboren bat egin beharko dute euskaraz denek. Sailek aukeratu ahal izango dute zein komunikaziotan egingo den euskaraz eta zenbat, malgutasunez eta progresioa zainduz, baina gutxieneko hori denek betetzen dutela eta aurrerantzean funtzio horiek gehitzen joango direla bermatuz. Horrela, derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak benetako tresna edo bitarteko izango dira euskara erabilerarekin lotzeko, eta ez ezagutzarekin soilik, orain arte maiz gertatu den bezala, izan ere erabilera-planetako helburuak lortzeari lotuak egongo dira bete-betean.

3.6. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak

Erabilera-plan honen lehen zutabe nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dira. 86/1997 Dekretuaren 18. artikuluko c) eta d) puntuetan esaten da erabilera-planetan zehatz-mehatz azalduko dela euskara nola erabili eta tratatuko den zenbait esparrutan. IV. Plangintzaldi honetarako, beraz, araubide orokor bat prestatu da, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztientzako hizkuntza-irizpide nagusiak finkatzeko. Irizpide nagusi horiek helmuga erakusten dute; jakina, irizpide horiek sail bakoitzak bere egoerara ekarri, egokitu eta erabilera-planetan zehaztu eta gauzatuko ditu. Sailak irizpide horiek kontuan hartu beharko ditu beti eta horiek betetzera joko du arian-arian, etengabe eta aurrera begira. Gainera, Administrazio Orokorrean Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpide berak izateak batasuna ematen dio gure Administrazioari, irudi bateratua eta kalitatezkoa emanda.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak banan-banan garatuta datoz *A Eranskinean*, eta aurrekoekin alderatuz gero, badira zenbait berrikuntza. Hona hemen batzuk:

- Administrazioak jarrera aktiboa hartuko du, eta, lehen aldiz, eskua luzatuko du berarekin euskaraz ere harremanetan jarri ahal izateko, bai ahoz eta baita idatziz ere.

- Argi eta garbi azaltzen da zein hizkuntza erabili kasu bakoitzean: ahoz eta idatziz; herri-tarrekin, beste administrazioekin eta Eusko Jaurlaritza barruan.
- Lehentasuna ematen zaio sortze-lanari, alegia, gaitasuna duen orok bere lana euskaraz ere egiteari, baina itzulpenetara jo gabe.
- Idazketa elebidunaz hitz egiten da, korredakzioaz eta komunikazioen kalitateaz.
- Aldizkari, liburu, ikerketa-lan eta antzekoak bi hizkuntzetan plazaratzeko beste bide batzuk azaltzen dira.

3.7. Metodologia

IV. Plangintzaldi honetarako metodologia berria erabiliko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Abantaila nagusiak honakoak dira:

- Lehenengoz abiatzen da diagnosi kuantitatibo eta kualitatibo batetik.
- Helmugatzat eta gidaritzat ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- Euskaraz “zer” eta “nola” egiten hasi behar duen esaten zaio Administrazioako langileari.
- Metodologia egingarria da, mugatua delako eta lortu ezinezko helbururik ez duelako ezartzen.
- Eraikitzailea ere bada, eta erraza erabiltzen; hau da, metodologia bera ez da helburua, tresna bat baizik, euskara, gaztelaniarekin batera, Administrazioako hizkuntza izan dadin.
- Metodologia bateratua da, sail guztiak bide berean jartzeko modukoa. Jada, lortu du sailletako isolamendua gainditzea eta denak bide bertsutik joatea; bide bertsutik, baina malgutasunez, izan ere sail bakoitzaren abiapuntua desberdina da (langile-kopurua, baliabideak, hizkuntza-egoera...), eta, alde horretatik, desberdina izango da proiektuaren kudeaketa ere.
- Neurketa ahalbidetzen da, alegia, badago jakiterik sail bakoitzak zenbat egiten duen aurrera.
- Badu antolakuntza-egitura bat, hiru batzordetan gauzatzen dena; hauexek dira gorenetik hasita (ikus 3.11.): Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra, Sailletako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak eta Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea. Baina horretaz gain, planaren eraginpeko langileen lan-taldeak ere sortu dira, euren iritziak jaso eta aintzat hartu ahal izateko.

Metodologia berriaren bidez, ezagutzatik erabilerarako bidean jarri dira Administrazio-ko langileak, ezagutzatik erabilerarako bidea egiteko laguntza eta bultzada eman nahi zaie. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak oinarri eta helmugatzat harturik, sail bakoitzak zehaztu behar du zein helburu orokor garatu nahi dituen, eta helburu horien betetze-maila neurtzeko adierazleak markatu. Horrela jakingo da, beraz, egoera zein den eta zer lortu nahi den, eta, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideei jarraituz, baita noraino heldu nahi den ere plangintzaldiaren amaieran. Aurrera egiteko, gainera, zehaztu beharra dago nola lortuko diren helburuak, alegia, zein estrategia eta baliabide erabiliko diren, eta, batez ere, zein ekintza-plan jarriko den martxan, hasierako helburuak lortzeko.

Metodologia honetan oinarrituko dira abian jarriko diren erabilera normalizatzeko planak, eta horien kudeaketa errazago egiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beharrezko aplikazio informatikoak jarriko ditu sailtako eta erakunde autonomoetako hizkuntza-normalkuntzako teknikarien esku.

B Eranskinean luze eta zabal aurkezten den metodologia berri hau, behar diren egokitzapen guztiak egin ondoren, Administrazio Orokorrean ez ezik gainerako herri-administrazioetan ezartzeko modukoa ere bada.

3.8. Parte-hartzaileak

3.8.1. Erabilera-planetan sartuko direnak

86/1997 Dekretuko 17. artikulua herri-administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak zehazten ditu, erakundeak nahitaez bete beharreko indizearen bitartez. Horrela, %25etik %45era bitarteko indizea duen erakundeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen kasua, %43,87 indizea baitauka), honako helburuak izango ditu derrigorrez, bete beharreko indize horrek ahalbidetzen dion heinean:

1. Jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezartzea.
2. Gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan administrazio-atal elebidunak ezartzea.
3. Gizarte-izaerako administrazio-atal elebidunak ezartzea.
4. Apurka-apurka, erakundearen euskararen erabilera normalizatzeko planean horrela ezarrita badago, izaera orokorreko administrazio-ataletan ere euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira.

III. Plangintzaldian jendaurreko eta gizarte-izaerako administrazio-atalak izan ziren lehentasunezkoak: lehen mailako lehentasuna aitortu zitzaizen jendaurreko administrazio-atale; bigarren

mailakoa, plangintzaldian zehar elebidun izateko aukeratu ziren gizarte-izaerako administrazio-atalei; hirugarren mailakoa, gainontzeko gizarte-izaerako administrazio-atalei; eta lehentasunik gabe geratu ziren izaera orokor eta izaera bereziko administrazio-atalak.

Sailtako erabilera-planak zehazterakoan, ordea, nabarmen geratu zen lehentasun horiek bakarrik aintzat hartuz gero, langile euskaldun asko eta asko planetik kanpo geratuko zirela. Hori ekiditeko, lehen mailako lehentasuna (L1) eta bigarren mailakoa (L2) zuten atalak sartzeaz gain, gonbita egin zitzaie, atal horietatik kanpokoak izan arren, ondorengo baldintza hauek betetzen zituzten langileei: derrigortasun-data ezarria eta hizkuntza-eskakizuna eskuratuta zutenei. Gonbita onartu zuten guztiak *borondatez* sartu ziren sailtako erabilera-planean.

III. Plangintzaldiaren amaieran, zailena lortu zen: euskararen erabilera normalizatzeko planak izatea ia sail guztietan; hala ere, esan bezala, plan horietan langile batzuek baino ezin izan dute parte hartu: jendaurreko ataletakoek (L1), elebidun izendatuko direnek (L2) eta derrigortasun-data igarota eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izanik euren *borondatez* planean sartu nahi izan dutenek. Guztira, gutxi gorabehera, 1.000 bat lagun. Hala ere, ezagutza datuek erakusten dute 3.821 lagunek dutela egiaztatua hizkuntza-eskakizunen bat; beraz, euskaraz ere lan egin dezakeen jende asko geratu da erabilera-planetatik kanpo.

Administrazioak ahalegin berezia egin du azken urteotan langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko. Gizarteak euskaraz ere lan egitea eskatzen duen une honetan ezin dira alferrik galdu horretarako prestaturik dauden giza baliabideak. Hori guztiori kontuan izanik, IV. Plangintzaldian osotuagoa izango da sailtako erabilera-planetako parte-hartzea. Beraz, Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean langile hauek parte hartuko dute, lanpostuen jabe izan edo ez izan:

- Derrigortasun-data ezarria izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenek, edozein dela ere beren atalaren izaera (2008ko urtarrileko datuen arabera: 1.839).

Horietaz gain, sailak aukera emango die ondoko hauei erabilera-planean sartzeko:

- Derrigortasun-data ezarri gabe izanik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenei (2008ko urtarrileko datuen arabera: 868).

Salbuespen gisa, zenbait lanposturen lan-jardunak estrategikotzat jotzen badira, sailak gonbita egin ahal izango die derrigortasun-data izanik dagokien hizkuntza-eskakizuna baino bat baxuagoa egiaztatu dutenei. Gonbita jaso duten guztiek berariaz adieraziko dute erabilera-planetan parte hartu nahi dutela, sailak horretarako erabakitako epean.

Jakina, batzuetan gerta daiteke sail bateko erabilera-planean sartuta dagoen langile bat beste sail batera mugitzea; hori gertatzen bada, bigarren sail horrek jarraipena bermatuko dio langileari.

3.8.2. Erabilera-planetik kanpo geratuko direnak

Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak ikusten duenean abian jarritako ekintzei esker langileari jarritako helburua lortu dela (hari lotutako adierazleak hala ziurtatzen duelako), alegia, frogatzen denean langileak dagozkion komunikazioak euskaraz ere gauzatzen dituela, ekintza-planetik kanpo geldituko da, harik eta beste urrats bat eman eta beste helbururen bat ezartzen zaion arte. Nahiz eta kanpoan egon, langilea erabilera-planaren eraginpean egongo da, eta jarraipena egingo zaio.

Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak urtero erabakiko du zein langile sartu eta ateratzen diren ekintza-planetik. Hori bai, langile batek irteteak esan nahi du handik aurrera komunikazio horiek euskaraz edo euskaraz ere egingo dituela (edo direla) sail horretan eta itzulpenetara jo gabe. Izan ere, langileak prestatuko dira emaitza jakin bat lortzeko: langileek beraien lan-jardunetako zenbait komunikazio (edo denak, jarritako helburu eta adierazleen arabera) euskaraz ere gauzatzeko.

3.9. Lehentasun komunikatiboak

Saileko planean nortzuk parte hartuko duten zehaztu ondoren, sailak (Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen bidez) erabakiko du zer egingo den euskaraz bere eremuan, hori bai, beti aurrera begira: helburua nork bere sailean euskara ahalik eta gehien erabiltzea dela.

Euskaraz zertan hasi erabakitzeke, beraz, Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak, parte hartzen duten langile horiek guztiak aintzat hartuta, azterketa komunikatiboa egingo du; alegia, begiratuko du erabilera-planetan sartzen diren langileek gauzatzen dituzten lan-jardunen izaera komunikatiboa; izan ere, garbi dago, ikuspuntu komunikatiboaren arabera, komunikazio guztiak ez direla berdinak, ez dutela garrantzi estrategiko bera Eusko Jaurlaritzarentzat. Esate baterako, komunikazioaren aldetik ez da gauza bera sail batek herritar guztiei bidali behar dien informazio-gutuna edo teknikari batek bere zerbitzuburuari idazten dion posta elektronikoa; ez da berdina behin eta berriro errepikatzen den dokumentu bat idaztea edo behin bakarrik erabiliko den bat atontzea; ez da gauza bera telefonoa erabiltzea herritarrari informazioa emateko edo lankide bati datu batzuk eskatzeko.

Horregatik, eta erabakitzeke zein izango diren euskaraz ere landuko diren komunikazio horiek, sailetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek aztertu beharko dituzte erabilera-planetan sartutako langile bakoitzak egiten dituen lan-jardun nagusiak, eta lan-jardun horietako bakoitzean gauzatzen diren ahozko eta idatzizko komunikazio esanguratsuenak. Edozein kasutan ere, ahaleginak egin beharko lirateke lan-prozedura horiek sistematizatzeko, eta tipologia jakin baten barruan sailkatzeko, euskararen erabilerak modu sistematikoan aurrera egiteko irizpide bateratuak izan ditzan sail guztietan.

Ikerketa sakonago hori egin bitartean, hona hemen, azterketa komunikatiboa garatzean, zein lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaion:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.
- Euskarazko komunikazioa lehenesten dutela adierazi duten atal, sail eta erakundeekin izaten diren harremanak.
- Lanpostuko eginkizunak betetzean, harreman-sare handia dutenak, Administrazioaren barruan izan edo kanpoan izan.
- Eragin handiko komunikazioak:
 - ◊ Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak).
 - ◊ Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak).
 - ◊ Idazki askotarako oinarri direnak (dekretuak...).
 - ◊ Aplikazio informatikoetan sartuko direnak.
 - ◊ Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web orrian azalduko direnak, aldizkariak, iragarkiak, argitalpenak...).
- Sailaren ikuspuntutik, lehenesteko modukoak diren beste komunikazio batzuk.

Beste era batera esanda: euskararen erabilera normalizatzeari begira, Administrazioako langileen komunikazio bat (ahozkoa zein idatzizkoa) lehentasunezkoa izango da baldin eta herritarrei edo euskara lehenesten duten atal edo administrazioei zuzentzen bazaie; edota, maiztasuna edo garrantzia kontuan izanda, eragin handia badu, kasuan kasuko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen iritziz.

Sailetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek egin beharreko azterketa komunikatibo honek hainbat kontu ere argituko ditu:

- Lehenengo eta behin argituko du zeintzuk langile sartu behar diren lehentasunez erabilera-planetan sail bakoitzean.
- Jakinaraziko du zein hurrenkeratan garatuko diren erabilera-planean lehenetsitako komunikazioak; esate baterako, eman dezagun planean sartutako langile baten komunikazioak aztertu direla, eta azterketa horren ondorioz, langileak lehentasunezko hiru komunikazio hauek dituela: herritarren zalantzak telefonoz argitu, euskarazko komunikazioa hautatu duten herriei gutunak idatzi eta bere ataleko zenbait informazio web orrian jarri. Bada, hiru komunikazio horiek hurrenkera honetan (herritarrak, hartzaile euskaldunak, web orriak) landuko lirateke plangintzaldian zehar. Horrela egingo du aurrera euskararen erabilerak Administrazioan: apurka-apurka, aurten dokumentu bat landuta, hurrengoan pare bat, hiru..., edo, gaitasunaren arabera, lan-jardun guztiak; harik eta lanpostu bakoitzari dagozkion zereginak norberak eta itzulpena jo gabe euskaraz eta gaztelaniaz bete arte, hori izango baita benetako Administrazio elebiduna.

- Azterketa komunikatiboak bide emango du, gainera, sailaren barruan derrigortasun-datak jartzeari buruzko proposamena egiteko, 4.1. eta 4.2. puntuetan agertzen den prozeduraren arabera.
- Horretaz gain, azterketa komunikatiboak erakutsiko du bidea, sailtako erabilera-planetan adostutako hainbat ekintzatan aurrera egiteko: zirkuitu komunikatiboen norabideak azaleratuko dira, jakingo da zein diren moldatu eta gaurkotu beharreko idazki-ereduak, zehatz jakingo da zein den langileen hizkuntza-prestakuntzari buruzko beharra...

Hitz batean: orain baino langile gehiago sartuko dira sailtako erabilera-planetan, baina ez edozein modutan, baizik eta emaitza bati begira: Sailarentzat lehentasuna duten komunikazioak euskaraz ere egiten prestatzeko eta komunikazio horiek eguneroko jardunean euskaraz ere gauzatzen laguntzeko.

Edozein kasutan ere, azterketa komunikatibo hori modu errealistan egingo da, ezinezkorik ezarri gabe, jardunbideen norabidea, harreman-sarea eta transbertsalitatea bere osoan ondo begiratuta, euskararen katea eten ez dadin.

3.10. Berariazko hizkuntza-prestakuntzaren eta -trebakuntzaren garrantzia

Azterketa komunikatiboa egin ondoren jakingo da zenbat ekintza antolatu behar diren hautatutako komunikazioak euskaraz ere egiten hasteko, eta ekintza horien guztien artean bada bat Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean izugarritzko garrantzia duena: berariazko hizkuntza-prestakuntza. Administrazio langile euskaldun gehienek hizkuntza-prestakuntza orokorra jaso dute (alfabetatze- edo euskalduntze-ikastaroak), eta prestakuntza horri eta beren ahaleginari esker, hizkuntza-gaitasun jakin bat eskuratu dute. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; baina, badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza-eskakizuna egiaztatu zenetik orain arte; zenbateraino erabili den euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa... Arrazoi bat edo bestea dela, kontua da zenbait langilek kezka bat baino gehiago izan dezaketela pentsatzen dutelako, euskara ikasi izan arren, gaur egun ez direla gauza beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko. Eta horretara dator, hain zuzen ere, berariazko hizkuntza-prestakuntza: irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzera. Hori dela eta, abian jarriko dira administrazio-hizkeraren gaineko ikastaroak, idatzizko komunikazioari buruzko ikastaroak, idazki-eredu ezberdinak lantze-koak edota tokian-tokian beharrezko izan daitezkeen xede edo helburu bereziei buruzkoak.

Berariazko hizkuntza-prestakuntzarako bi bide aurreikusten dira proiektu honetan: ikastaroak eta trebakuntza-saioak. Lehenak aurrez aurrekoak (irakasleen bidez) edo online izaerakoak

(tutoreen bidez) izango dira; bigarrenek, trebakuntza-saioek alegia, segida praktikoa emango diote ikastaro horietan ikasitakoari.

Hona hemen prozesua, zehatz-mehatz: tokian tokiko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak, antzemandako lehentasunezko komunikazioak kontuan izanik, komunikazio horiek gauzatzeko dituzten langileak berariazko hizkuntza-prestakuntzako ikastaroetara bidaliko ditu; hau da, komunikazio edo idazki horietan aritzen diren planeko langileek bakarrik hartuko dute parte, eta komunikazio jakin horiek egiteko prestatuko dira.

Ikastaroa amaiturik, trebakuntza saioa hasiko da, hala badagokio. Trebakuntzak hasiera eta amaiera izango du: hasi egingo da, langileak komunikazioa lantzeko laguntza behar duenean; eta bukatu, komunikazio hori euskaraz egiteko gauza denean.

Edozein kasutan ere, erabilera-planaren bidez Saileko Hizkuntza Ofizialen Batzordeak ziurtatu behar du badagoela erabateko lotura langileak planaren arabera landu behar duen komunikazioaren eta horretarako antolatutako ikastaro espezifikoaren artean (trebakuntza-saioak barne). Azken finean, ezin da ahaztu langilea prestatzen ari dela, ez euskara ikasteko, baizik eta emaitza jakin bat lortzeko: komunikazioak (ahozkoa zein idatzikoa) euskaraz ere egiteko. Horixe, beraz, prestakuntza-mota honen eraginkortasunaren erakusgarria: langilea, prozesua amaitutakoan, euskaraz lanean hastea.

3.11. Antolakuntza-egiturak

Plangintzaldi berri honetan beharrezko antolakuntza-egitura batzuk aurreikusten dira, sailtako erabilera-planek aurrera egin dezaten.

3.11.1. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra

Jaurlaritza mailako jarraipenerako organorik gorena izango da, eta proiektu osoaren ardura izango du.

PARTAIDEAK:

- **Presidentea:** Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- **Presidenteordea:** Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- **Idazkaria:** presidenteak izendatzen duena (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzakoa)
- **Herri Administrazioetako Normalkuntza Planak Jarraitzeko arduraduna** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

- Saisetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeetako ordezkari bana (saisetako zerbitzu zuzendariak edo, haren faltan, erakundeak izendatzen duen Erabilera Planaren arduraduna)
- Saisetako Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordeko ordezkari bat
- IVAPeko ordezkari bat (zuzendaria)
- Funtzio Publikoko ordezkari bat (zuzendaria)
- TIRAKA taldeko ordezkari bat
- Langileen Batzordeko ordezkari bat

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak deituta bilduko da Batzorde Iraunkorra, gutxienez, urtean behin, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Urtero-urtero Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Saisetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek emandako informazioan oinarrituta egindako txostena aztertu eta baloratu.
- Sail guztiei eragiten dieten erabaki estrategikoenak hartu.
- Planak aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen lagundu.

3.11.2. Saisetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak

Eusko Jaurlaritzako sail guztiek izango dute Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzorde bana, beraien erabilera-plana aurrera eramateko. Batzordekide nor izango diren sailak berak erabaki behar du, baina egoki litzateke, sail guztien homogeneotasunaren mesedetan, honela osatzea:

- Presidentea: Zerbitzu zuzendaria
- Idazkaria: Saileko zerbitzu zuzendariak erabakitakoa
- Eragindako ataletako zuzendari eta zerbitzuburuak
- Saileko hizkuntza-normalkuntzako teknikaria
- Planean ari diren langileen ordezkari bat
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkari bat
- IVAPeko ordezkari bat
- Sail bakoitzak horrela erabakitakoak

Saileko zerbitzu zuzendariak deituta bilduko da Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea, gutxienez, urtean bi aldiz, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Euskararen egoeraren diagnostikoa onarturik, sailerako ekintza-plana onartu.
- Plana kudeatu eta horren jarraipena egin.

- Urtero, urte amaieran balorazio-txostena osatu eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali.
- Urtez urte beharrezko jarraipena eta egokitzapenak egin, saileko erabilera-planaren arrakasta ziurtatzeko.
- Sailean euskararen erabilerak gora egin dezan beharrezko diren baliabideak eta neurriak hartu eta gauzatu.

3.11.3. *Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea*

Eusko Jaurlaritza mailako batzorde teknikoa izango da, tokian tokiko esperientziak elkarren artean trukatzeko balio duena.

PARTAIDEAK:

- Presidentea: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Idazkaria: normalkuntza-teknikariek izendatutakoa
- Sail guztietako normalkuntza-teknikariak
- Herri Administrazioetako Normalkuntza Planak jarraitzeko arduraduna (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikari bat
- IVAPeko ordezkari bat

Batzordeko idazkariak edo edozein kidek proposatuta bilduko da Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea, eta, besteak beste, eginkizun hauek izango ditu:

- Ekintza bateratuak antolatu, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutakoei ekarpenak egin.
- Martxan jarritako ekintzen balorazioa egin.
- Etorkizunerako proposamenak egin.

3.12. Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen funtzioak eta lan-prozedura

Erabilera-plan berri hauetan nabarmena da Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearen garrantzia; izan ere, harena da, nagusiki, erabilera-planaren erantzukizuna: hartzen dituzten erabakien araberakoa izango da euskarak sailean izango duen isla. Lan-prozedura hau proposatzen da Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordearako:

Plangintzaldiko urte bakoitzaren lehen hiru hilabeteetan Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea batzartuko da, eta honako hauek egingo ditu, betiere aintzat hartuta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrak erabaki dezakeena:

- Beharrezko egokitzapenak proposatu saileko urteko erabilera-planaren helburu orokorretan, helburu zehatzetan, adierazleetan, estrategietan eta ekintza-planean (horretarako baliabideak jarrita).
- Erabaki zein langile sartuko den planean urte horretan (horretarako baldintzak betetzen dituelako) eta, hala badagokio, zein langile aterako den planetik nahiz eta haren eraginean jarraitu (ezarritako helburuak bete dituelako).
- Aztertu eta hautatu planean sartuko den langile horietako bakoitzak zein lan-jardun landuko duen euskaraz urte horretan (lehenetsitako komunikazioen proposamena hizkuntza-normalkuntzako teknikariak egingo du).
- Harremanetan jarri erabilera-planean parte hartuko duten saileko langileekin; hala dagokielako sartzeko direnei planaren berri emango zaie eta, azterketa komunikatiboa egin ostean, euskaraz zein komunikazio landuko duten jakinaraziko zaie; borondatez sar daitezkeenei, berriz, gonbita egingo zaie planean sar daitezen, eta epe bat emango die Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak erantzun dezaten. Azken hauekin ere, eta, betiere adostasuna tarteko, euskaraz gara daitezkeen lan-jardunak zehaztuko dira.
- Premia balego, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari proposatu saileko lanpostuetako hizkuntza-eskakizunei dagozkien aldaketak edo egokitzapenak.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari derrigortasun-data berriak jartzeko proposamena egin, 4.1. eta 4.2. puntuetan ezarritakoaren arabera.

Plangintzaldiko urte bakoitzaren azken hiru hilabeteetan Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea bigarren batzartuko da, eta hizkuntza-normalkuntzako teknikariak eskuratutako datuen arabera, aztertu egingo ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari urtearen amaieran bidali behar dion urteko balorazio-txostenean azaltzen diren daturik esanguratsuenak (datu horiek 3.13.1 puntuan jasota daude). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urteko txosten orokor bat osatuko du sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek helarazitako txostenekin, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrari aurkeztuko dio.

Laburbilduz, sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak urtean bitan batzartuko dira, gutxienez: lehenengoan, erabilera-planen gaineko erabaki estrategikoenak hartuko dituzte; eta, bigarrenean, urte amaieran, urteko balorazio-txostena prestatuko dute, autoebaluaketarako bide emango diena. Txosten hori Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidaliko diote.

Horiek horrela izanik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lan bikoitza izango du: batetik, plangintzaldiko urte bakoitzaren amaieran sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek

bidalitako balorazio-txostenak bildu, Eusko Jaurlaritzako txosten orokorra osatu eta Batzorde Iraunkorrari aurkeztu; eta, bestetik, plangintzaldiaren erdian (2010) eta amaieran (2012) herri-administrazio guztietako balorazioak jaso (86/1997 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen duenaren arabera) eta IV. Plangintzaldiari dagokion balorazio-txosten orokorra egin, Eusko Jaurlaritzari, Legebiltzarrari, eta gizarteari oro har, euskararen erabilera herri-administrazioetan zertan den jakinarazteko.

Balitzko egutegi batera ekarrita eta labur-labur, hauek izango dira sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeen egitekoak plangintzaldiko bost urteotan zehar:

- 2008an, IV. Plangintzaldiari dagokion saileko erabilera-plana onartu behar dute, edo, erabilera-plana indarrean izatekotan, egokitu IV. Plangintzaldirako irizpideak aintzat hartuta: planean sartuko diren langileak, azterketa komunikatiboa...
- 2009-2012. urteak:
 1. Aurreko urtean egindako neurketa oinarri dela, 2012ra begirako helburuak, adierazleak, estrategiak eta ekintza-plana zehaztu.
 2. Planean langile berriak (eta landu beharreko komunikazioak) sartu, helburuak bete dituztenak atera eta plana bera kudeatu.
 3. Urteko balorazio-txostena idatzi, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali.
- IV. Plangintzaldiaren erdialdea eta amaiera: Herri-administrazio guztietan, 86/1997 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen duenaren arabera, euskararen erabilera jarraipena egiteko beharrezko datuak eskuratu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Hurrengo puntuan xehetasun gehiago ematen dira bi txosten horiei buruz.

3.13. Planaren kudeaketa eta jarraipena

Aurreko puntuan zehaztu denez, sailtako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeek, beste lan askoren artean, erabilera-planen kudeaketa eta jarraipena egingo dute. Sail bakoitzaren abiapuntua ezberdina da, eta ezberdinak izango dira baita ere planak garatzeko helburuak, estrategiak eta ekintza-plana: sailek askatasunez joka dezakete horretan. Hala ere, sailek neurtu egin behar dute euskararen erabilera zertan den euren eremuan, eta horretarako bi eratako txostenak osatuko dituzte.

3.13.1. Urteko balorazio-txostena

Urteko balorazio-txostena Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoen eremuan egingo da. Urtero osatuko da, eta sailari autoebaluaketa egiten lagunduko dio. Txosten hori Hizkuntza

Politikarako Sailburuordetzari helaraziko zaio urtearen amaieran, honek sailtako txosten guztiak batu ostean, Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrari aurkez diezaion. Datu hauek emango dira:

- Saileko erabilera-planari, berez, dagozkion zenbait datu kuantitatibo:
 - ◊ Planean barneratutako langile-kopurua eta mugimenduak: zenbat langile sartu, zenbat irten...
 - ◊ Zenbat lan-jardun garatzen ari diren euskaraz.
 - ◊ Abian jarritako ekintza nagusiak: ikastaro-kopuruak, trebakuntza-saioak, moldatutako idazki-ereduak...
 - ◊ Langileen hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak: esleitutako hizkuntza-eskakizunei buruzko informazioa.
 - ◊ Arduradun politikoen hizkuntza-gaitasunari buruzko informazioa.
- Azterketa kualitatibo bat: urteko planaren indarguneak eta ahuleziak esparruka arakatu eta jaso. Hausnarketa horrek aurrera begirako erabakiak hartzen lagunduko dio sailari.

3.13.2. IV. Plangintzaldiaren tarteko eta bukaerako balorazioa

IV. Plangintzaldiaren tarteko eta bukaerako balorazio-txostenak izango dira. Txosten hauek osatzeko herri-administrazio guztiei eskatuko zaizkie euskararen erabilerari buruzko datuak. Horrek erakutsiko du erabilera zertan den 86/1997 Dekretupeko herri-administrazio guztietan. Tarteko eta bukaerako txosten horiek Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari aurkeztuko zaizkio. Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jasoko dira:

DATU KUANTITATIBOAK

- Erakundeko erabilera-planari, berez, dagozkion zenbait datu kuantitatibo:
 - ◊ Planean barneratutako langile-kopurua eta mugimenduak: zenbat sartu, zenbat irten...
 - ◊ Zenbat lan-jardun garatzen ari diren euskaraz.
 - ◊ Abian jarritako ekintza nagusiak.
- Arduradun politikoen euskara-maila (ulermena, mintzamena, irakurmena, idazmena).
- Langileen euskara-maila: hizkuntza-eskakizunen egiaztapenaren bilakaera.
- Hizkuntza-paisaia (errotulazioa, tresneria, papeleria).
- Baliabide informatikoak (euskaraz erabilgarri daudenak, benetan erabiltzen direnak).
- Hizkuntza-irizpideak (zenbateraino aplikatzen diren esparru guztietan).
- Kanpo-proiektzioa (argitalpenak, web orriak, iragarpenak).

- Lan-jardun nagusietako komunikazioen hizkuntza.
- Barne- eta kanpo-harremanak (ofizialak eta ez ofizialak).
- Kanpo-hizkuntzaren eskaera (saileko beste atalak, beste administrazioak, herritarrak).
- Sortze-lana eta itzulpenak.
- Lana euskaraz egiteko gaitasuna (arazoak, online dauden baliabideak...).

DATU KUALITATIBOAK

- AMIA bat egingo da, datu kuantitatiboak baloratu, proiektuaren ahuleziak, mehatxuak, aukerak eta indarguneak aztertu eta, gainera, euskararen erabilerak aurrera egin dezan proposamenak egitea ahalbidetuko duena.

3.14. Baliabideak

Administrazio Orokorreko Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, beharrezkoak izango dira giza baliabideak eta baliabide materialak. Hiru izango dira baliabide-hornitzaileak, bereziki, bakoitzari dagozkion funtzioen arabera: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, IVAP eta saila bera.

3.14.1. *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ardura izango da Administrazio Orokorrean euskara-erabilerak aurrera egitea modu homogeneoan: sail guztiak bide beretik eta era bateratuan. Jakina da sail bakoitzaren abiapuntua desberdina dela, hala ere, diagnosi bera erabili izanak, metodologia bera erabili izanak eta jarraipenerako irizpide berak izateak batasuna, koherentzia eta eraginkortasuna ematen dio proiektu osoari. Horregatik bada, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eginahal guztiak, hau da, giza baliabideak eta baliabide materialak, ikuspegi orokor horretatik abiatuta hedatuko dira: diagnosia, metodologia (helburu orokorrak, helburu zehatzak, adierazleak, ekintza-plana, jarraipenerako balorazio-txostenak), Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plana kudeatzeko aplikazioa, eta, aholkularitza bera ere bai.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza arduratuko da sail guztiei eragiten dizkieten ekintzak aurrera eramateaz; batez ere, komunikazioaren eta sentsibilizazioaren arlokoak direnean. Adibidez, demagun erabilera-planetako ekintza bat hau dela: langileen artean zabaldu euskara ere Administrazioan lan-hizkuntza badela eta apurka-apurka euskaraz ere lanean hasi beharra dagoela. Bistakoa da sentsibilizazio-kanpaina hori sail bakar baten eremutik haratago doala, beraz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza arduratuko da ekintza hori antolatzeaz.

3.14.2. IVAP

IVAP bere egitura eta eginkizunak arautzen dituen dekretuak ezartzen duenaz arduratuko da (urriaren 14ko 241/2003 Dekretua), eta horretarako neurriak hartuko ditu. Ardura horien artean, besteak beste, honako hauek daude: langileen hizkuntza-prestakuntza orokorra, berariazkoa eta trebakuntza; hizkera administratiboa eta juridikoa; itzulpengintza, interpretazioa eta terminologia.

3.14.3. Eusko Jaurlaritza eta bere erakunde autonomoak

Sailen eta erakundeen ardura izango da beraien eremuan euskararen erabilera-plana diseinatzeko, inplementatzeko eta jarraitzeko neurriak hartzea. Horretarako beharrezko diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dituzte. Sailak arduratuko dira Hizkuntza Ofizialen Kudeaketarako Batzordea epean sortzeaz, eta planaren garapenerako eman behar diren urrats guztiak emateaz. Urrats horien artean dago ekintza-plana aurrera eramatea ere.

Ekintza horiek aurrera eramateko izango dute sailek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntza (3.14.1.) eta IVAPen parte hartzea (3.14.2.). Hala ere, beste zenbait ekintza sailaren eremukoak izango dira soilik. Horrelako ekintzak sailek euren gain hartuko dituzte, adibidez: itzulpenak, edota hizkuntza paisaiari, kanpo proiektioari eta aplikazio informatikoak egokitzeari dagozkion ekintzak.

Ohiko hizkuntza-prestakuntzari dagokionez, dagokion erabilera-plana onartu ondoren, sail bakoitzak aukeratuko ditu hizkuntza-prestakuntzarako deialdi orokorrak egiten direnean lan-orduetan euskarazko eskoletara joango diren langileak (ikus 4.3 puntua), eta, era berean, langile horietako bakoitzaren prestakuntza-plana egingo du, IVAPen eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aholkuak aintzat hartuta.

Hizkuntza Eskakizunak IV. Plangintzaldian

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legean (97.2 artikulua) eta 86/1997 Dekretuan (7. artikulua) jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko beharrezko den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun dagokion.

Behin hizkuntza-eskakizuna ezarri ondoren, zenbait lanposturi derrigortasun-data ezarri behar zaie, indize bat aplikatuz. Indize hori Erroldako edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da, formula honi begira: euskaldunak + (ia euskaldunak/2). 86/97 Dekretuko 11. artikuluaen arabera, plangintzaldi bakoitzerako indizea kalkulatzeko, beraz, plangintzaldia hasten denean indarrean dagoen Erroldan jasotako azken datuak erabiltzen dira, betiere, herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta.

Derrigorrezko indizeak adieraziko du administrazioak hizkuntza-gaitasunari dagokionez indarrean dagoen plangintzaldian nahitaez bete behar duen helburua. Hau da, derrigortasun-data ezarri behar zaien lanpostuen ehunekoa zein den.

4.1. Derrigortasun-datak ezartzea

IV. Plangintzaldiaren hasieran Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioari dagokion derrigortasun-indizea %43,87koa da. Hori horrela, derrigortasun-datak jartzerakoan kontuan hartuko dira 86/1997 Dekretuaren IV. Atalburuko 20., 21., 22, eta 23. artikulua. Era berean 16. artikulua honela sailkatzen ditu administrazio-atalak: jendaurrekoak, gizarte-izaerakoak, izaera orokorrekoak eta izaera berezikoak; eta 17. artikulua gutxieneko helburu batzuk finkatzen ditu euskararen erabilera normalizatuz joan dadin. Hori guztia horrela, derrigortasun-datak bi alderdi hauek konbinatuz ezarriko dira: administrazio-atalaren izaera, eta kasuan kasuko administrazioari dagokion indizea.

Administrazio Orokorren indizea kontuan harturik, helburu hauek bete behar dira gutxienez Eusko Jaurlaritzan eta bere erakunde autonomoetan:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako jendurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan, eta pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira izaera orokorreko administrazio-ataletan ere.

4.2. Derrigortasun-datak jartzeko hurrenkera

Derrigortasun-datak jartzeko hurrenkera hau izango da:

- Jendurreko atal eta dotazioak.
- Atal elebidunak.
- Gizarte-izaerako atalak, baldin eta plangintzaldiaren barruan atal elebidun izateko aukeratu badira.
- Gizarte-izaerako atalak.

Dena dela, IV. Plangintzaldi honetan, aurrekoez gain, atal hauetan ere jarri ahal izango dira derrigortasun-datak: izaera orokorreko ataletan eta izaera berezikoetan, baldin eta lanpostuaren jabeak dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen badu eta saileko erabilera-planean sartuta badago.

Ondorioak eta iradokizunak

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan honek atariko printzipioak jaso ditu; bildu ditu III. Plangintzaldiaren balorazio-txostenaren aurrerapenean proposatzen ziren lan-ildoetako puntu nagusiak; eta hartu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak berak egindako hausnarketak, aurreko plangintzaldietan hartutako eskarmentua oinarri.

Atarian printzipio batzuk finkatu dira IV. Plangintzaldiari begira, horietatik funtsezkoena hau da: Administrazioan euskaraz ere lan egin daiteke, eta horrek normala izan behar du. Horretarako, planifikazioa premiazkoa da, eta horrek lagunduko du, gainera, zenbait arlotan euskararen presentzia areagotzen; baina, plangintzaldi honen benetako protagonista Administrazioko langileak dira, horiek baitira zerbitzua ematen dutenak, eta, azken batean, euskara lan-hizkuntza moduan erabiliko dutenak. Jendea motibatu egin behar dela ere esan da, sinestarazi egin behar zaiela gai direla euskaraz ere lan egiteko, eta haien zalantza eta deserosotasunak gainditzeko behar dituzten baliabideak eskainiko zaizkiela, berriazko prestakuntza eta trebakuntza, batez ere. Hitz batean: langilea prestatuko da komunikazio jakin bat euskaraz egiten ikasteko, horretarako bakarrik; eta gaitasun hori eskuratzen duenean, euskaraz ere hasiko da lanean, eta horrek saileko eguneroko jardunean isla izan behar du.

III. Plangintzaldian antzemandako mehatxuek eta ahuleziek erakutsi dute zein den jarraitu behar den bidea IV. Plangintzaldi honetan gabezia horiek gainditu eta urrats berriak egiteko. Orain arte Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatzea eta zabaltzea plangintzaldiaren osagarrietariko bat besterik ez zen. IV. Plangintzaldi honetan, aldiz, hizkuntza-irizpideak osagarri izatetik oinarri izatera pasa dira. Azken batean, irizpideok joko-arauak zedarritzen dituzte, sail guztiek, erabilera-planak abian jartzerakoan, zer nolako bidea hartu behar duten jakiteko, eta, gainera, helmuga erakusten dute Administrazioa benetan elebiduna izatera iritsi dadin.

Atzean utzi berri dugun III. Plangintzaldiari leporatu zaion beste kontu bat koordinazio falta izan da. Koordinazio-ezak etenak sorrarazi ditu eta horrek zenbait eragile isolatuta utzi ditu; batez ere, sailetako normalkuntzako teknikariak. Erabilera-plan berriei esker, ordea, aurrera egiteko beharrezko egiturak sortu dira: Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea dago sail bakoitzean,

Normalkuntzako Teknikarien Batzordea osatu da eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra. Batzorde horiek guztiek bide ematen dute partaidetza eta eraginkortasuna uztartzeko etorkizunean. Plangintzaldi berrian aukera izango da, beraz, elkarrekin zalantzak argitzeko, prestakuntza bideratzeko, materiala eta esperientziak elkarren artean trukatzeko. Hitz batean: Eusko Jaurlaritzako sail guztien arteko koordinazioa ahalbideratzeko. Baina, Eusko Jaurlaritzaz gain, behar-beharrezkoa da EAeko herri-administrazio guztien arteko koordinazioa eta lankidetzaren bermatzea. HAKOBA izango da euskararen erabileraren normalizaziorako esperientziak denon artean zabaldu eta herri-administrazio guztiei eragiten dieten erabakiak hartuko dituen organoa. HAKOBAz gain, administrazioetako hizkuntza-normalkuntzako teknikarien batzordea eratuko da eguneroko jardunean eta plan honen inguruan ezagutza elkartrukatzeko eta zenbait ekintza koordinatzeko. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eratuko du batzorde hori.

Aurreko plangintzaldiaren beste ahulezia bat erabilitako metodologiaren zurruntasuna zen. Arazoak jabeturik, metodologia berria proposatzen da orain, Eusko Jaurlaritzako sailetan martxan jarri diren erabilera-planak kudeatzeko eta jarraitzeko. Metodologia berria, lekuan lekuko egokitzapenak eginda, guztiz baliagarria izan daiteke herri-administrazio guztietan erabilera-planak abian jartzen laguntzeko.

Bada beste berrikuntza bat IV. Plangintzaldi honetan; hain zuzen ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak izan beharreko lidergoari dagokiona. Azken urteotan erabilera-planak garatzeko zailtasun ugari izan da, bereziki sailtako hizkuntza-normalkuntzako teknikariek behar adinako laguntzarik ez dutelako izan, eta nahita edo nahigabe, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarengan jarri da erabilera-planen ardura. Bada, 2006an hasita, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez eta modu koordinatuan, martxan jarri dira lehendabiziko aldiz euskararen erabilera normalizatzeko planak sail eta erakunde autonomoetan. Plan horietan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak darama prozesuaren ardura, sail guztien ahaleginak koordinatuz eta bideratuz; hala ere, planak aurrera ateratzearen erantzukizunak sail bakoitzarena behar du izan. Sailek finkatu behar dituzte beren helburuak, estrategiak eta ekintza-planak; Sailek egin behar dute planaren jarraipena eta aztertu zenbateraino betetzen diren aukeratutako adierazleak; eta sailek jarri behar dituzte beharrezko neurriak eta baliabideak, planak arrakastatsuak izan daitezen.

III. Plangintzaldian sumatutako beste hutsune bat komunikazio falta izan da. Horri erantzuteko, azken hilabeteotan Administrazio Orokorreko sailetan onartu diren ekintza-plan guztiek hasiera bera izango dute: komunikazio-kanpaina bat, Eusko Jaurlaritzako langileak euskara erabiltzearen garrantziaz sentsibilizatzeko. Geroxeago, beste batzuk etorriko dira, euskal herritarrei zuzenduta gehien bat, hizkuntza-eskubideez jabe daitezen eta Administrazioa euskaraz jo dezaten.

IV. Plangintzaldiaren deskribapen hau bukatu aurretik, hona iradokizun batzuk.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren lidergoa eraman behar du: berari dagokio proiektuaren norabideak, abiadurak eta helmugak zein diren proposatzea; berari dagokio, era berean, eragileen arteko koordinazioa ziurtatzea eta bere esku dauden baliabide guztiak jartzea, sailletako erabilera-planek aurrera egin dezaten.

IVAP

IVAPek (eta baita helduen euskalduntzean aritzen diren gainerako erakundeek ere) ahaleginak egin behar ditu, orain HABEren bidez ematen duen hizkuntza-prestakuntza orokorrarekin jarraitzeaz gain, berariazko hizkuntza-prestakuntzaren eskaintza ugaritzeko eta langileen artean zabalteko. Helburua zein den garbi dago: langileak gaitzea lanpostuari dagozkion funtzioak euskaraz ere gauzatzeko. Horretaz gain, IVAPek bere egitura eta eginkizunak arautzen dituen dekretuari jarraiki (urriaren 14ko 241/2003 Dekretua) dagozkien baliabide guztiak jarri behar ditu erabilera-planen zerbitzura, besteak beste: etengabeko prestakuntza orokorra, hizkuntza-trebakuntza, idazki-ereduak, zalantzak argitzeko guneak, laguntza terminologikoa, eta lanean hasi eta jardun ahala sor daitezkeen bestelako beharrak.

Arduradun politikoak

III. Plangintzaldiaren amaieran, sailletako erabilera-planak abian jartzeko proiektuaren aurkezpenean, Ibarretxe lehendakariak deia egin zien Administrazio Orokorreko arduradun politiko guztiei, euskararen erabilera normalizatzearen garrantziaz jabetu eta prozesu horren akuilu eta aitzindari izateko. Azken batean, erabilera-planak bertan behera geratuko dira, arduradun politikoek erraztasun guztiak ematen ez badituzte. Eta erraztasunak emateko modu bat, ahaztu samar dagoena, elebitasun pasiboarena da. Eusko Jaurlaritzako agintari askok eta askok, euskaraz nahi bezain ondo egiteko gauza izan ez arren, ulertu egiten dute euskaraz, eta ulertzeko gaitasun hori giltza izan daiteke, euren sailetan euskarari ateak zabaltzeko. Hori da, gutxieneko bezala, arduradun politikoaren esparruan proposatzen dena. Jakina, jarrera aktiboagoa hartzen badute, hobeto.

Sailak eta erakunde autonomoak

Beraiei dagokie planaren ardura: helburuak eta estrategiak finkatzea, ekintza-plana onartzea, lana bera kudeatzea eta jarraitzea... Horretan eskuzabal jokatu behar dute: eskuzabal, saileko langileei planean sarbide ematerakoan; eskuzabal, etorkizuneko erronkak erabakitzerakoan; eskuzabal, planei beharrezko abiadura jartzerakoan; eta, eskuzabal, azkenik, planak gauzatzeko behar diren tresnak eskuratzerakoan. Planak indar handiarekin jartzen dira martxan beti, itxaro-

penez beterik, baina jakin beharra dago bide luzea dagoela egiteko; lan-hizkuntza ez da egun batetik bestera edo dekretu baten bidez aldatuko den kontu bat. Lan iraunkorra eta isila eskatzen du horrek, urtez urte, urratsez urrats, helmugara ailegatu arte.

Normalkuntzako teknikariak

III. Plangintzaldian zehar, erabilera-planik ez zenez, normalkuntzako teknikariak itzulpen-lanak egiten aritu dira kasu askotan edota euskarazko ikastaroak kudeatzen. Oraingo proiektua errealitate bihurtuko bada, ordea, buru-belarri murgildu behar dira teknikariok erabilera-planetan. Horrenbestez, proiektuaren zamarik astunena eramateaz gain, oso garrantzitsua izango da langileekiko harreman zuzena, egunerokoa. Normalkuntzako teknikariak jakin behar du zer-nolako lan-jardunak egiten dituzten planean sartuta dauden langileek; jakin behar du, halaber, zein ekintza jarriko diren martxan, langileak zenbait komunikaziotan euskaraz trebatzeko; baina, oroz gainetik, normalkuntzako teknikariak jakin behar du euskaraz lanean hasi behar diren horiek motibatzen, haien beldurrak eta zalantzak uxatzen, euskaltegiko ikasle izateari utzi eta benetako euskal hiztun bihurtu daitezten. Eta horretan garbi izan behar da hasieran litekeena dela euskararen erabilera areagotzeak kalitatean eragina izatea. Hori normala da, eta hala azaldu behar zaie langileei, amore eman ez dezaten. Une honetan hobe da euskaraz sortutako idazki akastuna, itzulpen bikaina baino, iragankorra baita fase hau.

Langileak

Administrazio Orokorreko langileak dira, azken finean, erabilera-planen protagonista. Orain arte ez da asmatu langile horiek behar bezala trebatzen Administrazioako zereginak euskaraz egiteko; ez da asmatu bakoitzari adierazten zer egin behar duen euskaraz. Eta horrek halako beldurra sortu du langile askorengan. Ez da gauza bera idazlan bat egitea euskaltegian edo txosten juridiko bat lanean. Langileek jakin behar dute euskaraz lanean hasten direnean zalantzak sortuko zaizkiela, ezinegonak, edozein lan berriri aurre egitean gertatzen den bezala; hasieran, ahalegintxo bat egin beharko dute euskaraz aritzeko; baina, garbi izan dezatela hau: inork ez die ezinezkorik eskatuko, eta laster konturatuko dira uste baino gehiago dakitela euskaraz, uste baino errazagoa dela euskaraz lan egitea.

Tiraka eta langileen ordezkariak

Langile euskaltzaleen elkarte hau, eta baita langileen ordezkariak ere (sindikatuak eta Enpresa Batzordea), bidelagun izan behar dira prozesuan zehar, izan ere, nor egokiago langileak eurak baino lankideak sentsibilizatzeko? Beraz, horretan ezinbestekoa izango da Tirakako eta langileen ordezkariak duten organismoetako lagunen kolaborazioa.

Bestelako herri-administrazioak

Orain arteko guztia Administrazio Orokorrari begira jorratu bada ere, aintzat hartzen dira EAEko gainontzeko herri-administrazioak ere. Haien esku jartzen dira irizpideak, metodologia, esperientzia eta baliabideak, egoki diren neurrian, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan hau administrazio guztietara hedatzeko.

A
ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAN
HIZKUNTZA OFIZIALAK
ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

Sarrera

Eusko Jaurlaritzan, azken urteotan langileak euskalduntzen egin diren ahaleginen ondorioz, langile ugari dute euskaraz lan egiteko gaitasuna; dena dela, oraindik ere hainbat tokitan, urte luzeetako inertziaren indarrez, gaztelaniaz jarraitzen da lanean. Eta garbi dago, Administrazioa benetan elebiduna izango bada, gure bi hizkuntza ofizialak orekaz eta berdintasunez erabili behar ditugula.

Bai, “erabili” esan dugu; erabilera baita edozein hizkuntzaren etorkizunaren giltzarria: erabileran datza gakoa, eta hor dago koska eta erronka. Izan ere, formalki aitormen bera duten euskara eta gaztelania egiazki maila berean jartzea baita helburua; euskara ere Administrazioan gaztelaniaren maila berera eramateko urratsak ematea da aurrez aurre daukagun egitekoa. Urrats eraginkorrek eman behar dira: ez azkarregi, alferrikakoak ez ezik nekagarriak eta porroterako seguruak baino ez baitira (paperean lilura sortu arren Administrazioako eragileek aurrera ezin eraman baititzakete); ezta ere, ordea, geldoegi, erabilera –eta erabilera bakarrik– denez giltzarria, euskararen “ezagutzan” inbertitutakoari ez bazaio erabileran errentagarritasun etengabe eta gero eta handiagoa ateratzen, praktikan atzerantzko bidean abiatzeko arriskua baitago. Kontua, beraz, ezagupenetik erabilerarako jauzia pixkanaka egiten joatea da, gerorako eta beste inorentzat utzi gabe. Egiazki egin daitekeena baino gehiago amestu gabe, baina ahalegintxo bat edo beste medio egin daitekeen guztia eginez.

2008ko urtarrilaren 1ean abiatu da IV. Plangintzaldia, eta 86/1997 Dekretuak 19.1 artikuluan aurreikusten duenaren arabera, herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planak onartuko dituzte plangintzaldiaren lehenengo urtean, edo aurreko planen egokitzapenak. Bada, lan horretarako ezinbesteko gidari izango dira Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, planaren helmuga eta pausoak zedarrituko baitituzte; izan ere, Administrazio Orokorrek elebieten jardun dezan, behar-beharrezkoa da langile, atal eta sail bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak, alegia, noiz eta zer egin behar duen euskaraz.

Horrenbestez, hemen jasotakoak hizkuntza ofizialen erabilera arautzera datoz. Araubide orokorra da prozesuaren helmuga markatzen duena, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztientzako hizkuntza-irizpideak finkatu nahi dituenak. Irizpide orokor horiek zehazteko, ordea, sailtako erabilera-planak daude; hor zehatz-mehatz deskribatzen dira araubide hone-

tan modu orokorrean ezarritakoak. Erabilera-plan horietan gauzaten eta gorpuzten dira, hortaz, araubide honetako irizpide nagusiak.

I. Kapitulu

Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau orokorrak

1. artikulua.- Eragin-eremua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek bete behar dituzte arau hauek.

Arauok Administrazioaren harreman ofizial eta protokolozkoak dituzte helburu, eta ez harreman pribatu edo ez-formalak.

Kontuan izanda, harreman horiek EAEtik kanpoko herritar eta erakunde publiko zein pribatuekin ere izaten direla, horrelakoetan eta euskararen itzala hedatuz joan dadin, oro har, elebietan idatziko die Eusko Jaurlaritzak horiei; hau da, euskaraz eta tokian tokiko hizkuntza ofizialean: gaztelaniaz, katalanez, frantsesez, ingelesez... Hala eta guztiz ere, herritar edo erakunderen batek euskara hautatzen badu, euskaraz idatziko zaio.

2. artikulua.- Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak, lan-hizkuntzak

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekin, harremanetako hizkuntza beste administrazio batzuekin, eta lan-hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan.

Hori betetze aldera, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten Eusko Jaurlaritzako langileei bi hizkuntza ofizialean jarduteko gaitasuna aitortzen zaie; hortaz, hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasu bakoitzean, lan-beharkizunen arabera.

3. artikulua.- Eusko Jaurlaritzaren jarrera aktiboa

Gaztelania eta euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak izan arren, eta ofizialtasuna egiazkoa eta eraginkorra bilakatzeko bidean urratsak eman diren arren, begi bistakoa da

lehenengoaren nagusitasuna Administrazioaren gaurko komunikazioetan. Egoera hori orekatu nahian, Eusko Jaurlaritzak berebiziko ahalegina egin du langileak gaitzeko, eta ahaleginak egin behar ditu euskararen erabilera Administrazioan sustatzeko. Bultzada horrek, ordea, aktiboa nahi du izan, ez baita nahikoa Eusko Jaurlaritzak euskaraz erantzutea Administrazioa euskaraz jo duten herritar eta administrazioei. Beste urrats bat egingo du aurrera: Jaurlaritzak aurea hartu, eta, bere baliabideen barruan, euskaraz egiteko gonbita luzatuko du (beti ere sailletako erabilera-planetan adostutakoa kontuan harturik).

4. artikulua.- Kalitatezko komunikazioak

Kalitatezko komunikazio idatzia sustatu nahi da Administrazioan; hau da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak. Hona hemen kalitatezko testuak idazteko irizpideak:

- Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.
- Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafoka, lege-aipamenak oin-ohar modura...
- Testuak zuzena izan behar du.
- Hizkuntza bakoitzak badu bere esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, administrazioko hizkera berritu, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago.
- Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko.

5. artikulua.- Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak

Eusko Jaurlaritzak sortutako komunikazioetan, euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, beharrezko neurriak hartuko dira euskara nabarmentzeko. Horretarako badira, gutxienez, bi bide nagusi:

- Kokapena: hitzak direnean, euskara aurrean edo gainean; zutabeak direnean, ezkerrekoa euskararentzat; eta bi orrialde direnean, eskuinaldekoa euskararentzat.
- Tipografia: izan kontuan letraren neurria eta mota ere erabil daitezkeela euskara nabarmentzeko.

6. artikulua.- Eusko Jaurlaritzaren harreman komunikatiboak

Eusko Jaurlaritzak hiru harreman mota ditu ardatz bere eguneroko zereginak betetzean: herritarrak, beste administrazioak eta Eusko Jaurlaritzaren barrukoa (sailen artekoa edota, sailaren barruan, atalen artekoa). Harreman horiek, oro har, bi eratarik gauzatzen dira: ahoz eta idatziz. Edozein kasutan ere, arreta berezia jarri behar zaio komunikazio telematikoa, datozen urteotan izugarriko garrantzia hartuko baitu.

6.1. Ahozko komunikazioa

Eusko Jaurlaritzak euskaraz eta gaztelaniaz emango du zerbitzua, betiere kontuan harturik solaskidearen nahia, hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Nolanahi ere, ahozko harreman-mota guztietan (telefonoz, harrera-lekuetan...), euskaraz egingo dute lehen hitza Eusko Jaurlaritzako langileek, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Beti errespetatuko dute solaskidearen hizkuntza-aukera, inolako de-erosotasunik eragin gabe errespetatu ere.

- a) **Herritarrari zerbitzua ematen zaionean**, euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da.

Euskaraz ez dakien langile bati herritarren batek euskaraz hitz egiten badio edota euskaraz jardun nahi duela adierazten badio, orduan langile horrek saileko erabilera-planak zehaztutako protokoloa jarraituko du, herritarraren eskubide hori bermatuz.

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzako langileek ezin izango diote eskatu herritarrari hizkuntza batean edo bestean jarduteko. Aitzitik, herritarrak hautatuko hizkuntzan bideratuko du langileak zerbitzua.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

- b) **Administrazioen arteko harremanetan**, harrera euskaraz izatea bermatuko da: lehen hitza, alegia. Eta ahalegin berezia egingo du Eusko Jaurlaritzak jarraipena ere euskaraz izan dadin, solaskidea euskal hiztuna den kasuetan. Horretarako, oinarri izango da betiere saileko erabilera-plana, han zehaztuko baitira baliabideak eta neurriak.
- c) **Jaurlaritzaren barruko harremanetan**, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, arian-arian lan-hizkuntza ere izateko bideak urratuko dira. Horrela, adostasuna

tarteko, langileen arteko ahozko harremanak eta eguneroko zereginak dakartzaten ahozko jardunak apurka-apurka euskaraz ere egingo dira: lan-bilerak, jendaurreko ekitaldiak... Hori bai, sail bakoitzeko erabilera-planetan aurreikusitako helburuak, baliabideak eta ekintzak oinarri hartuta.

6.2. Idatzizko komunikazioa

Bi aukera aztertuko dira: Eusko Jaurlaritza dokumentu-igorlea denean eta hartzailea denean.

6.2.1. Eusko Jaurlaritza **dokumentu igoilea denean** (herritarrari zerbitzu ematean, beste administrazio batzuekin harremanak ezartzean eta Eusko Jaurlaritza barruan), oro har, lehenengo komunikazioa elebrietan edo euskaraz egingo da, jarraian aipatzen diren egoeren arabera.

Elebrietan egitekotan, bide emango zaio hartzaileari Administrazioarekin ados jarri eta euskararen aldeko hautua egiteko, baldin eta kasuan kasuko administrazio-atalak gaitasuna badu, itzultzaileen beharrik gabe, lan-jardunen komunikazioak euskaraz egiteko. Nolanahi ere, hartzaileak nahiago balu elebrietan edota beste hizkuntza ofizialean jarraitu harremanetan Administrazioarekin, jakinaraztea baino ez du izango, eta hautatutako hizkuntza horretan izango da komunikazioa handik aurrera, bestelako erabakirik hartu ezean.

Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok hartzen badu parte eta hizkuntzaren gainean ados jartzen ez badira, espediente edo prozedura bultzatu duen pertsonak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da. Hori bai, betiere besteen hizkuntza-eskubideak errespetatuz, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarritz.

Hori horrela izanda ere, Eusko Jaurlaritzak euskaraz igorriko ditu idatziak baldin eta:

- Herritarrak, beste administrazioak edo Eusko Jaurlaritza barruko kasuan kasuko langileak aldeztatik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela.
- Ohiko harremana euskara hutsezkoa bada; horrelakoetan, euskararen aldeko hautua egin dela ulertuko da.

6.2.2. Eusko Jaurlaritzak **dokumentua jaso eta erantzun behar duenean**, honela jokatu du (herritarrari zerbitzu ematean, beste administrazio batzuekin harremanak ezartzean eta Eusko Jaurlaritza barruan):

- Gaztelaniaz jasotako idatziari gaztelaniaz erantzungo dio. Betiere euskara aukeran eskainita, baldin eta kasuan kasuko administrazio-atalak, itzultzaileen beharrik gabe, horretarako hizkuntza-gaitasuna badu.

- Elebietan jasotakoari, oro har, elebietan erantzungo dio. Betiere kasuan kasuko administrazio-atalaren arabera, euskara hautatzeko bidea emanaz.
- Euskaraz jasotakoari euskaraz erantzungo dio.

6.3. Komunikazio telematikoa

Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoa pertsona fisiko eta juridikoekiko harremanetan. Komunikazio-mota berri horiek aldaketak ekarriko dituzte Administrazioaren eguneroko jardunean, eta horien artean handiena hau izango da: hemendik aurrera normala izango da herritarrak tramitazio bat egitea telefonoa edo ordenagailua erabilia, alegia, funtzionarioen beharrik izan gabe.

Komunikazio hori eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da bide telematikoa sorrarazten dituen ahozko eta idatzizko mezu guztiak erabat argiak eta anbiguotasunik gabekoak izatea, Administrazio bulegoetatik kanpo dagoen herritarrak inolako laguntzarik gabe erraz ulertzeko modukoak. Horrek mezu horien ikerketa komunikatibo sakona eskatzen du, betiere hizkuntzaren kalitatearen bidetik. Tramitazio telematikoa erabili beharreko hizkuntzei dagokienez, Administrazio Orokorrak irizpide hauei jarraituko die aurrerantzean:

- Tramitazio elektronikoa, informatikoa eta telematikoa herritarrak hautatzen duen hizkuntzan egingo da: euskaraz edo gaztelaniaz.
- Nolanahi ere, tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpen edo ziurtapena testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango dio herritarrari elebietan jasotzeko.

II. Kapituluak

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

7. artikulua.- Hizkuntza ofizialen erabilera eta itzulpen-irizpideak

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak esaten duenez, Administrazioaren komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egin behar dira; inon ez da esaten, ordea, itzulpena nahitaezkoa denik horretarako. Nolanahi ere, euskararen egoera soziolinguistikoa dela-eta, hauxe izan da azken urteotako joera: testu gehienak gaztelaniaz sortu izan dira, eta gero euskarara itzuli. Gauzak horrela egiten badira, garbi dago erdal testuak markatzen duela maiz euskal itzulpenak izango duen egitura, estiloa eta itxura.

7.1. Idazketa elebiduna

Mendekotasun hori bazter uzteko, Eusko Jaurlaritzak, ahal den neurrian, Administrazioako agiri elebidunak sortuko direla bermatuko du, itzulpen-zerbitzuetara sistematikoki jo gabe. Azken batean, informazioa komunikatzea da Eusko Jaurlaritzaren zeregina, bi hizkuntza-komunitate ezberdinei komunikatzea, alegia; eta horretarako ez dago itzulpenen beharrik: nahikoa da zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortu eta ematea, betiere edukia errespetatuz, baina estiloa hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta. Idazketa elebidunaren prozesu hori errazteko, sail bakoitzak, IVAPekin elkarlanean, baliabideak jarriko ditu bere erabilera-planean ezarritakoaren arabera, besteak beste:

- Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langileak
- Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak
- Trebatzaileak
- Idazki-eredu normalizatuak
- Kontsulta-zerbitzuak
- Informatikako tresnak
- Etab.

7.2. Korredakzioa

Hizkuntza ofizialak maila berean jartzeko beste bide bat korredakzioa da. Horren bidez, dokumentuak hizkuntza jakin batean idatzi, eta gero itzultzera eraman ordez, dokumentu bera bi hizkuntza ofizialetan idatziko da aldi berean; alegia, testuak, hasiera-hasieratik, bi erredaktore izango ditu, bakoitza ondoen menderatzen duen hizkuntzan espezializatua, baina elebidunak biak. Idatzi beharreko testuaren edukia eta ezaugarriak zein diren jakin ondoren, bi korredaktoreak ados jarriko dira testuaren helburu, egitura, estilo, hiztegi, testu-aipamen, tonu eta gainerakoetan. Hori egin da, korredaktore bakoitzak bere irakurleen kulturaren ezaugarrietara moldatuko du testua.

Horrela bada, Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko ditu, korredakzioak arian-arian bere tokia izan dezan sail guztietan; hori bai, komunikazioaren baldintzek horretarako bide ematen badute.

7.3. Itzulpena

Idazki bat bi hizkuntza ofizialetan emateko, itzulpena ez da ezinbestekoa; hala ere, inoiz idazkiren bat itzuli behar bada testuaren berezitasunak hala eskatzen duelako, sail bakoitzaren ardura izango da bere dokumentuak itzultzea.

Sailletako erabilera-planetan barneratutako lehentasunezko komunikazioak ezingo dira itzuli komunikazio horiek aurrera atera behar dituenak beharrezko prestakuntza jaso badu horretarako. Kasu horietan langileak berak sortuko ditu euskarazko testuak, itzultzailearen laguntzarik eskatu gabe.

Eusko Jaurlaritzak kanpotik jasotzen dituen idazki guztiak ez dira, besterik gabe, itzuliko. Baldin eta egiaztatzen bada administrazio-atal hartzailean agiria aztertu eta izapidetu behar duenak ez duela behar adinako gaitasunik hizkuntzaren aldetik agiria bera ulertzeko, orduan edukia-
ren laburpena egingo dio atal horretako lankide gaituren batek, eta ezinbestekoa denean bakarrik egingo zaio agiriaren beraren itzulpena.

III. Kapituluak

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak beste zenbait jarduera-esparrutan

8. artikulua.- Langileen prestakuntza orokorra (etengabea)

Prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan emango zaie Eusko Jaurlaritzako langileei ahal den guztietan, eta izena ematerakoan hizkuntza aukeratu ahal izango da.

Prestakuntza-arloan hizkuntzen arteko desoreka nabarmena denez, Eusko Jaurlaritzak guxtuenaren alde egingo du. Hori horrela, neurriak hartuko ditu euskarazkoen eskaintza handitu, eta gero eta ikastaro gehiago eman daitezen euskaraz, bai IVAPek antolatutako prestakuntza-plan orokorrean, eta baita sailak berak antolatutako saioetan.

Eusko Jaurlaritzak berebiziko ahalegina egingo du, euskarazko ikastaroen kalitatea behar den modukoa izateko: edukia eta erabilitako hizkuntza.

Sailak beharren arabera erabaki ahal izango du euskara-maila altua duten langileei prestakuntzako ekintza batzuk euskaraz bakarrik eskaintzea.

9. artikulua.- Erregistroa

Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan alor bat egongo da sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan, bat izan edo gehiago izan, dagoen adierazteko.

Eusko Jaurlaritzako erregistro administratiboetan dokumentuen inskribapena dokumentuak idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo da.

Erregistroaren inskripzioa hizkuntza ofizial batean zein bestean egonik ere, behar den guztietan ziurtatuko da inskripzioaren itzulpena, erregistroa kontsultatu nahi duen herritarraren hizkuntza-hautapena errespetatzeko.

10. artikulua.- Diru-laguntzak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatzeko Arauei buruzko Legearen testu moldatua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1 artikulua c) hizkian xedatutakoaren arabera, diru-laguntza eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan, horiek esleitzeko eta, hala badagokie, horien zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean kontuan izan behar da hizkuntzaren erabilera, laguntza edo diru-laguntzaren objektuan hizkuntzaren erabilerak eragina duenean edo Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 25., 26. eta 27. artikuluetan aipatzen diren jarduera-eremuetan.

Diru-laguntzak eta laguntzak esleitzerakoan, Eusko Jaurlaritzak bereziki zainduko ditu arauetan jasotako hizkuntza-irizpideak; alegia, onuradunek betebeharrekoak betetzen dituztela, eta hala ez bada, hartu beharreko neurriak hartuko direla.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeke eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

11. artikulua.- Argitalpenak¹

Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira, eta horietan euskarak, gutxienez, %50 hartuko du.

1 Ikusi apirilaren 7ko 67/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitalpenak arautzen dituena, bereziki, 15. atala.

Testu legal eta arau-bildumak elebietan argitaratuko dira, eta horretarako 7. artikuluan jorratutako bideak erabiliko dira, alegia: idazketa elebiduna, korredakzioa, eta besterik ezean, itzulpena.

Bestelako argitalpenei dagokienez: aldizkariak, liburuak, ikerketa-lanak, doktoretza-tesiak, txostenak, katalogoak, gidak... Eusko Jaurlaritzak euskaraz ere sortzea lehenetsiko du.

Horrelako testuak argitaratzerakoan, orain arte, nagusiki, testu legalekin bezala jokatu izan da: gaztelaniaz sortu eta euskarara itzuli. Bada, gutxieneko %50eko kopuru hori errespetatzeko badira beste bide batzuk, esate baterako: zenbait argitalpen euskaraz kaleratzea eta beste zenbait (desberdinak) gaztelaniaz, hizkuntza batean idatzitakoari sumarioak egitea beste hizkuntzan eta alderantziz...

12. artikulua.- Tresna eta aplikazio informatikoak

Bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira saileko programa informatiko komertzial edo orokorrak eta sailak berak erabiltzeko berariaz sortzen dituen programa edo tresna informatikoak.

Sail bakoitza arduratuko da, erabilera-plana oinarri hartuta, hemendik aurrera sortzen diren aplikazioetan irizpide hori betetzen. Eta erabilgarri dauden programa informatikoak euskaraz lan egiteko prestaturik ez daudenean, dagokion sailak egutegi bat egingo du tresna informatiko horiek berri, egokitu eta hizkuntza-irizpide horiei lotzeko.

Xede horri begira, bertsioa elebiduna bada, euskarazkoa moldaera txukuna eta erabilgarria izango dela bermatuko da: euskarazkoa ez da izango gaztelaniazkoaren egokitzapen hutsa.

Nolanahi ere, euskarazko bertsioaren erabilera hobetsiko da derrigortasun-data ezarrita izan eta dagokien hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan eta baita, derrigortasun-data ez izan arren, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten horietan ere.

13. artikulua.- Internet eta intranet sareak²

Eusko Jaurlaritzaren eskumenean diren Internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira. Izenaz edo izenburuaz gain, euskarazko edukia ere, arian-arian, ugarituz joango da, saileko erabilera-planean zehaztutako eran.

2 Ikusi ekainaren 8ko 108/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia-eredua arautzeari buruzkoa, bereziki, 6. artikulua.

Eusko Jaurlaritzako eta bere erakunde autonomoetako web orrietara sartzean, aukera egongo da euskara, gaztelania eta, hala badagokio, gainerako hizkuntzak hautatzeko.

Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

Sailaren web orrietan beste sail, erakunde, enpresa edo gainerakoek sortutako edukiak barneratzen direnean, bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira; alegia, sortze-hizkuntzen arteko oreka izango da oinarri, eta kalitatea bereziki zainduko da.

14. artikulua.- Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak

Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak) oro har, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira, bulego, egoitza zein lagatako lokal guztietako kanpoaldean nahiz barrualdean.

Errotuluetako eta noizbehinkako oharretako testua euskara hutsean idatzi ahal izango da ondoko kasuetan, betiere euskararik ez dakiten herritarren hizkuntza-eskubideak urratu gabe:

- a) Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- b) Mezuak piktograma batez lagundurik agertzen direnean eta horren bitartez ulergarriak direnean.

15. artikulua.- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

Bi hizkuntza ofizialetan egingo dira sailtako iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak; hala ere, hartzailearen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, euskaraz ere egin ahal izango dira.

Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.

Kanpainaren edukiak eta esloganak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak; hau da, gaztelaniaz funtzionatzen duen testuak euskaraz porrot egiten duela gerta ez dadin. Hori ekiditeko, komunikazio-kanpainetarako lehiaketa publiko eta era guztietako kontratazioetan baldintza gisa eskatuko da kanpainaren mezua bi hizkuntzatan sortua izatea, hots, hizkuntza batean sorturikoaren itzulpena ez da baliozkotzat emango. Horrela, bada, ahalegina egingo da kanpainak euskaraz ere sortzeko eta euskarazko komunikazioa zaintzeko: idazki jatorrak, zuzenak, ulergarriak eta egokiak izango dira.

16. artikulua.- Izen ofizialak

Eusko Jaurlaritzaren organo, egitarau, proiektu, jarduera edota ekintza guztiek bi hizkuntza ofizialean izango dute izen ofizialaren deskribapena, hala badagokio.

17. artikulua.- Eusko Jaurlaritzak antolatutako jendaurreko ekitaldiak

Euskararen erabilera bermatuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo bere erakunde autonomoetako kargudun eta enplegatu elebidunek, baldin eta ekitaldia Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ipar Euskal Herrian bada, eta erakundearen duten kargu edo lanpostuaren izenean ari badira.

Administrazioak euskara-gaitasun egokiko pertsonak izendatuko ditu halako ekitaldiarako.

Eusko Jaurlaritzako sailek antolatzen dituzten prentsaurreko, ekintza instituzional, hitzaldi, mahai-inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro, erakusketa eta abarren antolamendu-fasean hizkuntzak nola erabiliko diren zehaztu beharko du sailaren arduradunak, alderdi hauek kontuan izanda: ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzulegaiak, hizlari edo irakasleak, eta erabili edo banatuko den materiala.

Ekitaldiaren izaerak aldi bereko interpretazioa eskatzen duenean, alde zuzenetik ongi zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta interpretazio-lana egiteko behar diren elementu materialez horniturik dagoen areto bat hautatuko da. Komunikaziorako teknologiek ematen dituzten aukerak baliatuko dira euskara eta gaztelania erabiltzerakoan, ahozko komunikazioa hizkuntza batean eta euskarri informatiko bidezkoa beste hizkuntza batean konbinatuz, esaterako.

18. artikulua.- Kontratazio administratiboak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako kontratazio-organoei nahitaez sartuko dituzte Administrazio kontratuak karatuletan eta berariazko klausula administratiboen pleguetan kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza-baldintzak, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartutako Akordioaren arabera³.

3 Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartutako Akordioa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen eta bere erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzei buruzkoa.

IV. Kapitularia

Hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko baliabideak eta tresnak

19. artikulua. Kudeaketa

Sail bakoitzaren ardura izango da hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau hauek bere esparruan ezagutzen eta betetzen direla bermatzea; hori guztia, saileko erabilera-planean jasotakoa aintzat harturik.

Hori horrela izanda, Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeak, euskararen erabilerari buruzko txostena egiten den bakoitzean, hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau hauek sailean zenbateraino betetzen ari diren jakinaraziko dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

B
ERANSKINA

M**ETODOLOGIA**

2003-2007 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean AEBEMET metodologia erabili zen, erabilera-planak EAEko herri-administrazioetan zabaltzeko orduan; nolana ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007ko abenduan aurkeztutako balorazio-txostenean argi geratu zen metodologia hori ezarri zuten hainbat administrazioetan egokitzapen batzuk proposatzen zirela; izan ere, AEBEMET, hizkuntza-normalkuntzako teknikari ugarien ustez, astunegia eta zurrunegia zen, eta, beraz, erraztu eta malgutu beharra zegoen, premia berriei erantzuteko eta erabilgarriago egiteko.

Hori guzti hori kontuan izanik, IV. Plangintzaldi honetan metodologia berria proposatu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoentzat. Hona hemen, bada, metodologiaren urratsak, sail eta erakunde horietako bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeko planak garatzeko:

1. Egoeraren diagnosis egin behar da (kuantitatiboa eta kualitatiboa).
2. Helburuak finkatu (orokorrak eta zehatzak).
3. Adierazleak ezarri.
4. Estrategiak deskribatu (orokorrak eta zehatzak).
5. Ekintza-plana diseinatu.
6. Plana kudeatu.
7. Planaren jarraipena egin.

I. Egoeraren diagnosis

Erabilera-planik ezin gauza daiteke, aldez aurretik euskararen egoera sail bakoitzean, eragindako atal bakoitzean eta langileen eguneroko komunikazioetan zertan den jakin gabe. Horrenbestez, euskararen egoera sakon ezagutzeko, bi azterketa proposatzen dira, biak ala biak ere plangintzaldiaren hasieran egin beharrekoak:

- Azterketa kuantitatiboa
- Azterketa kualitatiboa

Azterketa kuantitatiboa

Azterketa-mota honek datu kuantitatiboak eskuratzeko balio du; era askotakoak: kasuan kasuko sailari buruz, administrazio horretako zerbitzu edo atal bati buruz edo atal baten barruan langileek gauzatzen dituzten zenbait lan-jardunen izaera komunikatiboari buruz. Informazio bat edo bestea eskuratzeko, txantilo ezberdinak erabil daitezke, eta hor, besteak beste, honako datuak jasoko dira:

- Langileen eta arduradun politikoen euskara-maila
- Hizkuntza-paisaian euskarak duen tokia
- Hizkuntza-irizpideak finkaturik dauden ala ez
- Baliabide informatikoak
- Euskararen presentzia kontratuetan
- Kanpo-proiektzioa (liburuak, aldizkariak, web orria, jendurreko ekitaldiak, iragarpenak)
- Euskararekiko jarrerak
- Lan-jardun nagusien hizkuntza-erabilera (ahozkoak eta idatzizkoak)
- Barne- eta kanpo-harremanak (ahoz/idatziz, formalak/ez formalak)
- Kanpoko hizkuntza-eskaera
- Itzulpenak
- Lana euskaraz egiteko gaitasuna
- Lehentasuneko komunikazioen hizkuntza-erabilera (ahozkoak eta idatzizkoak)
- Norbanakoen prestakuntza-beharrak

Egoeraren diagnostia egiteko txantiloak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskuratuko dizkie sailetako Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordeei.

Azterketa kualitatiboa

Datu kuantitatiboak jaso ondoren, komeni da planean sartutako langileen ordezkari batzuek osatutako lantaldeak eratu eta batzartzea. Galdetegi bitartez lortutako emaitzak lan-taldeari aurkeztu, eta horrek balorazio kualitatiboa egingo du. Era horretara, zenbakiak ematen duten informazioa kontrastatu eta baloratu egiten da arloan lan egiten dutenekin eta horretan esperientzia dutenekin. Horri esker, sailaren barruan eta atal bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeko dauden aukerak, mehatxuak, ahuleziak eta indarguneak identifikatu ahal dira; hau da, AMIA matrizea osatu.

2. Helburuak (orokorrak eta zehatzak)

Helburu orokorrak

Helburuek, euskararen erabilera gehitzeko bidean, *zer* lortu nahi den adierazten dute. Helburuok definitzeko garaian, hainbat irizpide hartu behar dira kontuan:

- Helburua argi eta zehatz erredaktatu behar da.
- Helburuek neurgarriak eta zenbatzeko modukoak izan behar dute, zenbateraino betetzen ari diren jakin ahal izateko.
- Helburuak adierazle bati lotuta joan behar du; izan ere, adierazle horiek helburuaren betetze-maila neurtuko dute.
- Helburuak plangintzaldi jakin bati erantzun behar dio.
- Ezartzen diren helburuek bideragarriak izan behar dute; horrek esan nahi du sailak jarduteko ahalmena izan behar duela helburu horietan, gutxienez, helburu hori bultzatu edo sustatzerakoan.

Nolanahi ere, helburu orokorrak zehatzu baino lehen, jakin beharra dago zein den xede nagusia; alegia, helburu guztiak bere baitan bilduko dituen asmorik gorena. Eta, legeei erreparatuta, Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen kasuan zalantzarik ez dago: helburua da hizkuntzen berdintasuna lortzea, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza “normala” bilakatzea, hori guzti hori, presentzia bermatuzetik haratago joanda eta euskarazko sortze-lana areagotuta. Euskarak, beraz, lanerako hizkuntza izan behar du bere osoan: zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman-hizkuntza beste administrazioekin, eta Eusko Jaurlaritza barruko lan-hizkuntza.

Asmo nagusi horretan oinarriturik, hona hemen Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoen erabilera-planatarako proposatzen diren lau helburu orokorrak:

- *Langileen hizkuntza-gaitasuna gehitu.*
- *Euskararen idatzizko erabilera areagotu, sorkuntzari lehentasuna emanaz.*
- *Euskararen ahozko erabilera gehitu.*
- *Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu.*

Helburu zehatzak

Helburu orokorrak, izenak berak dioen bezala, orokorregiak dira, eta errealitate ezberdin asko hartzen dituzte beren baitan. Hori mugatzeko, helburu orokor bakoitza helburu zehatzetan banatzen da. Erreparatu adibide honi:

Helburu orokorra: euskararen idatzizko erabilera areagotu, sorkuntzari lehentasuna emanaz

Idatzizko harremanei buruz ari garelarik, oso egoera ezberdinak aurki daitezke: harreman horiek barrukoak edo kanpora begirakoak izan daitezke; formaltasun-maila ere aldatu daiteke idazki batzuetatik besteetara. Horrela bada, helburu orokorraren inguruan, honako helburu zehatz hauek finkatuko dira:

- *Idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu.*
- *Idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu (harreman ofizial eta ez-ofizialetan).*
- *Idatzizko harremanetan euskarazko sortze-lana gehitu (gaur egun euskaraz zabaltzen diren idazki gehienak gaztelaniaz sortutako jatorrizko testuaren itzulpenak dira. Helburua argi dago: itzulpenaren beharra gutxitu).*
- *Idatzizko harremanetan euskarazko dokumentuen kalitatea bermatu (azken batean kontua ez da bakarrik nola edo hala euskararen produkzioak gora egitea baizik eta euskarazko idazkiak kalitatezkoak izatea).*

3. Adierazleak

Orain arte bi gauza egin dira: helburu orokorrak aukeratu, eta helburu orokor bakoitzaren barruan, helburu zehatzak deskribatu. Erabakita dago, beraz, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren bidez zer (zein helburu) lortu nahi den. Jakina, helburu horiek *zenbateraino* betetzen diren jakiteko tresnaren bat behar da. Bada, horixe dira adierazleak: neurgailu batzuk, helburuak betetzen ari diren ala ez jakiteko.

Kontuz ibili behar da, adierazleak ez zaizkiolako lotzen helburu orokorrari, baizik eta helburu orokor horren helburu zehatz bakoitzari. Hori bai, helburu zehatz bakoitzak nahi adina adierazle izan ditzake, betiere, den-denak argiak eta neurtzeko modukoak.

Demagun, adibidez, lortu beharreko helburu zehatza hau dela: *Ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu*. Helburu hori neurtzeko adierazleak lau hauek izan daitezke:

- *Euskarazko harrera telefonoan (%)*
- *Euskarazko harrera leihatilan (%)*
- *Euskararen erabilera jendaurreko ekitaldietan (%)*
- *Euskararen erabilera kanpo-harreman ofizialetan/formaletan (%)*

Ikusten denez, ehunekoak ageri dira. Abiapuntuko ehunekoak diagnosiak erakutsiko ditu. Gogoan izan helburuak eta adierazleak finkatu aurretik, egoeraren diagnostia egin dela sail eta atal bakoitzean; ezaguna da, beraz, zenbaterainokoa den euskarazko harrera telefonoan eta leihatilan, ezaguna da, era berean, jendaurreko ekitaldietan saileko ordezkariak euskaraz egiten duten ala ez... Beraz, adierazi beharko da plangintzaldiaren amaieran zein ehunekotara heldu nahi duen sailak. Hau da, une honetan euskarazko harrera telefonoan %33 baldin bada, plangintzaldiaren amaieran %50 izan daiteke edo %60... Beti gora.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuko ditu adierazle guztiak; hala ere, sail bakoitzak, bere plana adosterakoan, kendu, erantsi, moldatu eta egokitu egingo ditu proposamen horiek bere beharren arabera.

4. Estrategiak

Ezarritako helburuak lortzeko definitzen diren lan-ildoak dira estrategiak. Helburuetara heltzeko bidea adierazten dute, beraz. *nola* helduko gara helburuak betetzera? Zein bide landuko da? Galdera horiei erantzuten diete estrategiak.

Helburu zehatz bakoitzak bere estrategia dauka, baina litekeena da helburu batzuek estrategia bera izatea, eta, ondorioz, estrategia hori behin eta berriro errepikatzea. Horrelakorik ez gertatzeko, estrategiak bost multzo nagusitan bildu dira:

- *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren komunikazioa bermatu.*
- *Erabileraren aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa landu.*
- *Euskarazko eskaintza ugaritu eta euskarazko kanpo-eskaera handiagoa izan dadin sustatu.*
- *Langileak gaitu, euskaraz lan egiteko.*
- *Baliabideak jarri langileen esku, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeko.*

Baina hemen ere helburuekin gertatutakoa gertatzen da; alegia, estrategia orokor bakoitzaren barruan hainbat estrategia zehatz deskriba daitezke. Begiratu ondorengo adibidea:

Baliabideak jarri langileen esku, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeko

- *Lan-jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu: idazkiak euskaratu, idazki traketsak moldatu, txantiloak prestatu.*
- *Lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren zerrenda terminologikoak prestatu.*

- *Eguneroko lanean sortu daitezkeen zalantzak argitzeko sistemak zehaztu.*
- *Dokumentu eta ahozko diskurtso nagusien kalitatea neurtzeko baliabideak prestatu.*
- *Baliabide informatikoen euskarazko erabilera ahalbideratu eta sustatu.*
- *Barrurako kontratazioetan euskarazko giza baliabideen eta tresnen presentzia areagotu.*

5. Ekintza-plana

Estrategiak aurrera eramateko, ekintza-plan bat diseinatu beharra dago; hau da, zehaztutako estrategia zehatz bakoitzak bere jarduerak izan behar ditu, helburuak beteko badira: motibazio-kanpainak, ikastaroak, administrazioko idazkien egokitzapenak, itzulpenak... Erreparatu adibideari:

Oinarrizko estrategia: Baliabideak jarri langileen esku, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeko.

Azpi estrategia: Lan-jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu.

Ekintzak:

- Atal bakoitzeko lan-jardun nagusiak hautatu eta euskarazko gabeziak antzeman.
- Gabezia horiek betetzeko kasuan kasuko neurriak hartu (itzulpenak, testuen egokitzapena, ikastaroak...)
- Administrazioko kalitatezko hizkeraren irizpideak bilduko dituen liburua banatu saileko langileei (*IVAPeko estilo liburua*).

Urrats honetara iritsi arte egin den bezala, ekintza horiek guztiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatuko ditu. Gero, kasuan kasuko planak abian jartzen direnean, horietako batzuk baztertuta geldituko dira, eta, horien ordean, beste batzuk azalduko.

6. Planaren kudeaketa


Kontuan hartzen bada metodologia bera ezarriko dela Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztietan, erraz ulertuko da ezinbestekoa dela eragileen arteko koordinazioa. Hori lortze aldera, hiru batzorde nagusi eratuko dira (haien osaketa eta eginkizunak 3.11. atalean daude jasota):

- **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra** Eusko Jaurlaritza mailako organorik gorena izango da, eta proiektu osoaren ardura izango du.
- **Saileko Hizkuntza Ofizialen Kudeaketa Batzordea** Eusko Jaurlaritzako sail guztiek izango dute kudeaketa-batzorde bana, izenak dioen bezala, sail horren erabilera-planaren jarraipena egiteko.
- **Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarien Batzordea** Eusko Jaurlaritza mailako batzorde teknikoa izango da, eta garrantzi handikoa, bide emango duelako adituek hausnarketak eta tokian tokiko esperientziak elkarren artean trukatzeko.

Ikusten denez, planak kudeatzearen ardura hiru organo horiek izango dute; Saileko hizkuntza-normalkuntzako teknikaria izango da, ordea, planaren eragile nagusia. Lan hori errazteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak behar diren aplikazio informatikoak jarriko ditu hizkuntza-normalkuntzako teknikarien esku. Aplikazio informatiko horietan ekintza-plana, ekintza bakoitzaren jarraipena egiteko modua, eta erabilera-planean parte hartzen dutenek zer egingo duten euskaraz eta horretarako beharko duten berariazko prestakuntza jasoko dira.

7. Planaren jarraipena

Plan batean definizioa eta ezarpena bezain garrantzitsua da jarraipenerako prozedura zehaztea. Eusko Jaurlaritzako erabilera-planek eskema hau jarraitu beharko lukete:



Eskema horretan ageri denez, garrantzi handia du jarraipena ondo egituratzeak, izan ere jarraipenak bide eman behar du, katea eten gabe, helburuak berrikusteko, estrategia eta ekintza berriak planteatzeko, eta horrela, urtez urte, sailetako erabilera-planak definitzen joateko.


Hona hemen proiektuaren jarraipena egiteko urratsen proposamena (argibide gehiagorako, begiratu 3.12. eta 3.13. atalak):

- Diagnosian egindako neurketa oinarri dela, 2012ra begirako helburuak, adierazleak, estrategiak eta ekintzak zehaztuko dira.
- Urtero-urtero, langile berriak (eta landu beharreko komunikazioak) proiektuan sartu, atera eta plana bera kudeatuko dira.
- Urte bakoitzaren amaieran *Urteko balorazio-txostena* idatzi, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidaliko zaio. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, sailtako txosten horiek bildurik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrari aurkeztuko dizkio; gainera, plangintzaldiaren erdian eta amaieran herri-administrazio guztiei eskatuko zaizkie euskararen erabilerari buruzko datuak (udalak, Foru Aldundiak, Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak barne). Tarteko eta bukaerako txosten horiek Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari aurkeztuko zaizkio.
- Urtez urte beharrezko egokitzapenak egingo dira, saileko erabilera-plana arrakastatsua izan dadin.

C
ERANSKINA

HIZKUNTZA EGOERA
EUSKO JAURLARITZAN
ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAN

Hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data duten lanpostuak



IV. Plangintzaldiko derrigortasun-indizea

86/1997 Dekretuaren arabera indarrean dagoen plangintzaldi honetan erabili behar den errola 2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua da. Zentsu horren arabera euskaldunen, ia euskaldunen eta erdaldunen banaketa honako hau da:

Biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2.033.247	656.980	32,31	470.124	23,12	906.143	44,57

Aurreko taulan azaldutako datuak kontuan hartuta eta Dekretuan zehazten den formula erabili IV. Plangintzaldian bete beharreko derrigortasun-indizea honako hau da:

$$\%32,31 + (\%23,12/2) = \%43,87$$

Indize hau eta Eusko Jaurlaritzako lanpostu-kopurua (6.533) aintzat hartuta plangintzaldi honetan 2.866 lanpostuk ezarrita izan beharko dute derrigortasun-data.

Eusko Jaurlaritzako administrazio-atalak lehentasunaren arabera

Lehentasuna	Atalen kopurua
E (atal elebidunak)	19
I L (jendaurreko atalak)	86
II L (gizarte-izaerakoak)	42
III L (gizarte-izaerakoak)	285
IV LG (izaera orokorrekoak)	177
V LG (izaera berezikoak)	18
Lehentasunik esleitu gabe	87

Eusko Jaurlaritzako atalak izaeraren arabera

Izaera	Atalen kopurua
Jendaurrekoak	88
Gizarte-izaerakoak	344
Izaera orokorrekoak	178
Izaera berezikoak	18
Izaerarik esleitu gabe	87